

EUSKADIKO FUNDAZIOEN INPAKTUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA

Euskadiko fundazioen inpaktua

Txostena, 2023

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza

FUNDAZIOEN BABESLETZA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke : https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia 1.a, 2025eko ekaina

Ale-kopurua: 30 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernua Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1–01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena:
IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Inprimatzea:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta era Erreprografia Zerbitzua

ISSN: 3045-9737 (paperezko bertsioa)

ISSN: 3101-0172 (bertsio digitalean)

Lege-Gordailua: LG G 335-2025

Aurkibidea

AURKEZPENA.....1
Sailburuaren agurra 1
Sarrera 3
Metodologia 5
Definizioak 9
Begi-kolpe batez 13
1. DATU OROKORRAK 15
1.1 Inskribatutako fundazioak 15
1.2 Fundazioek urteko kontuak ematea 18
1.3 Fundazio motak: jarduera arloa, tamaina, antzinatasuna eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sarea 19
1.4 Gardentasuna 24
2. MAGNITUDE EKONOMIKOAK 29
2.1 Diru-sarrerak 31
2.2 Fundazioaren helburuetara bideratutako gastua 50
2.3 Ondare-egoera, finantza-egoera eta gastu erantsia 56
2.4 Banku-fundazioak 58
2.5 Euskal sektore publikoko fundazioak 66
2.6 Fundazioen sektoreak EAE-ko balio erantsi gordinari eta barne-produktu gordinari egiten dien ekarpena 71
2.7 EAE-ko fundazioen sektoreak sortutako balio sozialaren monetizazioa 74
3. PERTSONAK 81
3.1 Ordainpeko langileak 83
3.2 Patronatua 88
3.3 Boluntarioak 97
ONDORIOA. 103
ERANSKINAK 106
Siglak 107
Grafiko eta taulen indizea 107
Kontaktua 112

AURKEZPENA



Sailburuaren agurra

Balio sozial handiko fundazioen sare zabala



Fundazioek pisu eta garrantzia handia dute Euskadin. Ez bakarrik duten eragin ekonomikoagatik, baizik eta beren balio sozialagatik. Elkartasun-printzipioa oinarri, guztion ongizatea helburu duten proiektuak garatzen eta sustatzen dituzte, gizartean funtsezko eginkizuna betez, pertsona boluntario askoren lanaren eskutik, gainera.

Interes orokorreko proiektuak, bat datozenak gizarte gisa ditugun erronka globalekin eta garapen jasangarrirako 2030 Agendan zehaztutako alorrekin: hezkuntza, adinekoen egoitzak, gizarte-zerbitzuak, garapenerako lankidetza, kultura eta euskara, ingurumena edota teknologia eta ikerketa; azken batean, gure gizartearen eta Euskadiko gizarte-sarearen oinarrizko zutabeak direnak.

Fundazioak, beraz, funtsezko eragileak dira Euskadiren aurrerapen sozial eta ekonomikorako.

Fundazioen sektoreak, gizarteak berak bezalaxe, erronka handiak ditu aurrez aurre, hala nola, klima-aldaketa, biztanleriaren zahartzea, berdintasuna edo digitalizazioa. Horregatik, fundazioen etorkizunak halabeharrez egon behar du lotuta jasangarritasunarekin, teknologia berrien erabilerarekin eta erakundeen arteko elkarlanarekin, irtenbide eraginkorragoak eta inklusiboagoak mahaigaineratzeko; fundazioek gizartean duten eragina baliatu dezaten gizarte kohesionatuago, berdinzaleago eta solidarioagoa eraikitzeko.

Hori guztia agerian geratzen da *Euskadiko Fundazioen Inpaktua 2023* izeneko txostenean. Eskuartean duzuen memoria hau Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailari atxikitako Euskadiko Fundazioen Babesletzak egin du.

Txosten honek Euskadiko fundazioen sektorearen informazio ekonomikoa jasotzen du, baina inpaktu ekonomikoaz haratago, memoriak azpimarra jartzen du fundazioek euskal gizarteari egiten dioten ekarpenean.

Berdintasunaren alorrean egindako aurrerapausoak nabarmenak dira; enplegatuen %57 dira emakumeak eta erabaki-organoetan emakumeen presentzia handitu da, 2017ko datuarekin alderatuta %7 igo baita.

2023 amaieran, 481 fundazio aktibo zeuden; horietatik %28 gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloan, %17 garapen ekonomiko eta komunitarioko eremuetan eta %16 kultura eta euskara esparruan. Fundazioek 700 lanpostu berri baino gehiago sortu zituzten 2023an. 15.700 pertsona baino gehiagok egiten dute lan fundazioen sektorean. Balio erantsiko 896 milioi euro inguru sortzen lagundu zuten, hau da, EAEko barne produktu gordinaren %1,08.

Lerro hauen bidez, beraz, fundazioen eta fundazio horiek osatzen dituzten pertsonen lan eta konpromiso altruista aitortu eta eskertu nahi ditut, gizarte eta komunitate gisa aurrera egiten laguntzen diguten elkartasun-printzipio eta gizarte-sentsibilitatea ordezkatzen eta sustatzen dituztelako.

Espero dut memoria zuen interesekoa izatea eta aukera hau baliatu nahi dut nire eta nire taldearen fundazioen alde lanean aritzeko konpromisoa berresteko.

Maria Ubarretxena Cid

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua

Eusko Jaurlaritza

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren mendekoa bera, fundazioei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko administrazio-organoa da. Hala, haren ardura da fundazio-eskubidea behar bezala balia dadin laguntzea eta bultzatzea, fundazioen eraketa eta funtzionamendua legearen araberakoa dela zaintzea eta fundatzailearen edo fundatzaileen borondatea eta fundazioaren helburuak benetan betetzen direla ziurtatzea. Horrenbestez, Babesletzaren eginkizuna da sustatzea fundazioek beren buruei eta beren jarduerei buruzko publizitate nahikoa eta publizitate egokia ematen dutela; haren eginkizuna da, halaber, laguntza ematea estatistikako argitalpenak, azterlanak eta halako beste lan batzuk egin daitezen EAEko fundazioen errealitatearen alderdiei buruz, onuradunek eta gainerako interes-taldeek horren guztiaren berri izan dezaten.

2024ko martxoan Fundazioen 2022ko inpaktuari buruzko lehen txostena argitaratu zen, fundazioen etengabeko ahaleginari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin batera egindako lanari esker; 2023ko bigarren txosten honetan, berriz, sektoreak EAEko gizartean eta ekonomian duen inpaktuari buruzko datuak finkatu eta zabaldu dira. Edizio berri honek, hasitako analisiari jarraipena emateaz gain, ageria uzten du sektorearen bilakaera eta hazkundea: sortutako balioa, enplegua, eta barne-produktu gordinari egindako ekarpena; era berean, bide berriak irekitzen dira kuantifikazio horretan sakontzeko zeharkako inpaktuak aztertuz eta fundazioek jardueraren onuradunei egindako ekarpena neurtuz.

Txostenak hiru atal ditu. Lehen kapituluak informazioa eta zenbateko eguneratuak batzen ditu fundazioen egoera orokorrari, sektorearen egoerari eta lurraldeko egoerari buruz. Bigarren kapituluan magnitude ekonomiko nagusiak aztertzen dira, horien finantzaketa-iturriak eta gizarte eta ekonomiako ekarpena erakusteko. Hirugarren kapituluak sektoreak enplegua sortzeko duen gaitasuna eta boluntarioek duten presentzia erakusten du. Gainera, gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonak

zenbatesten ditu, eta emakumeek eta gizonek sektorean duten egoerari buruzko informazioa ematen du. Azkenik, azpimarratzekoa da txosten honek lehen aldiz aztertu duela emakumeen presentzia fundazioen patronatuetako presidentetza- eta idazkaritza-postuetan.

Metodologia

Atal honen helburua txostenean aztertzen diren sailkapenak eta prozedura deskribatzea da.

- **Aztertutako fundazioak:** Txosten hau egiteko kontuan hartu dira 2020, 2021, 2022 edo 2023ko ekitaldietan EAEko Fundazioen Babesletzaren aurrean kontuak eman dituzten fundazio aktiboen datuak.

- **Sailkapena, jarduera-arloaren arabera:** Jarduera-arlo bakoitza mugatzeko, EAEko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamenduaren eranskineko jarduerak hartu dira erreferentzia eta inspirazio gisa. Hori horrela, fundazioak jarduera-arlo hauetan sailkatu dira:

    - **Hezkuntza:** Derrigorrezko bigarren hezkuntzan, lanbide-heziketan edo bestelako hezkuntza ez-arautuan prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunduak eta ez-itunduak.
    - **Museoak eta ondare kulturala:** Museo-ondarearen edo ondare kulturalaren defentsa eta sustapena eta horien kudeaketa edo titulartasuna xedetzat duten fundazioak.
    - **Garapenerako lankidetza:** Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE) eta garapenerako lankidetzan aritzen diren beste erakunde batzuk.
    - **Egoitzak:** Egoitza-zerbitzuak eta adineko pertsonei, mendeko pertsonei eta gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonei arreta emateko zerbitzuak xede dituzten entitateak.
    - **Gizarte-zerbitzuak:** Beste gizarte-zerbitzu batzuen arreta xedetzat duten entitateak, «Egoitzak» atalean jasotakoen bestelakoak, pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea

sustatzeko, batez ere pertsonengan eta harremanetan oinarritzen diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

- **Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza:** Ezagutzaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ikerketa, garapena eta transferentzia xede duten entitateak —Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean jardun zein ez—.
- **Beste batzuk:** Aurreko motetan sartu ez diren jarduerak edo xedeak dituzten askotariko fundazioak. Hona hemen atal honetako jarduera-arloak: azterketak, pentsamenduaren hedapena eta bekak, inguruaren garapen sozioekonomikoa, kirolak, ingurumena, osasuna, euskara eta arte eszenikoak.

– **Sailkapena, tamainaren arabera:** Tamainaren araberako sailkapena egiteko, 2023ko ekitaldiko gastu erantsia hartu da kontuan. Ekitaldi horretan kontuak aurkeztu ez dituzten fundazioak badaude, aurkeztutako azken ekitaldia hartu da erreferentzia moduan, edo, beharrezkoa izan bada, mikro tamainako fundazio gisa izendatu dira. Hala, urteko gastuaren arabera, honela sailkatzen dira:

- Mikroentitateak: 300 mila eurotik behera
- Txikiak: 300 mila eta 1 milioi euro artean
- Ertainak: 1 eta 5 milioi euro artean
- Handiak: 5 eta 25 milioi euro artean
- Oso handiak: 25 milioi euro baino gehiago

– **Gardentasuna:** Fundazioek Interneten duten presentzia aztertu da, beren web-atarien eta horietan aurkezten duten dokumentazioaren bidez. Bilaketak egiteko, bilatzaile nagusiak erabili dira. Gardentasunaren atalaren azterketa 2024ko abenduan egin da.

– **KSE 2010:** Aztertutako euskal fundazioen ekoizpena, bat etorrita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 549/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritakoarekin (Europar Batasuneko Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarrari buruzko Erregelamendua, KSE 2010 izenez ezaguna), izan ekoizle pribatuak nahiz publikoak, «merkatukoa ez den ekoizpen» moduan ulertu da, hau da, beste unitate batzuei doan edo prezio

ekonomiko oso baxuetan emandako ekoizpena, ekoizpen-kostuak batuta kalkulatutakoa, kontuan hartuta KSE 2010 irizpidea, ekoizpenaren kostuaren % 50ean oinarritua —non, salmentek ekoizpen-kostuen % 50 baino gutxiago estaltzen badute, unitate instituzionala merkatukoa ez den beste ekoizle bat baita eta familientzako lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeen sektorean sailkatzen baita (FLIAGE)—. EAEko fundazioen ekoizpena ez denez «merkatukotzat» jotzen, enpresa-marjinak (ustiapenaren gerakin garbia kontabilitate nazionalean, EBITDA enpresa-kontabilitatean) deuseztzat jo dira.

– **Balantze, gastu eta diru-sarreren datu erantsiak:** Aztertu diren ekitaldiak 2020, 2021, 2022 eta 2023koak izan dira. Txosten hau argitaratu den datan, 2024ko ekitaldiko kontuak aurkezteko epea ez da iraungi. Emaitzen kontuaren eta balantzearen magnitude erantsien iturria fundazioek EAEko Fundazioen Babesletzari kontuak emateko espedienteetan aurkeztu dizkieten emaitzen kontuaren eta balantzearen formularioak dira. Datuak 2024ko azaroan irauli dira.

– **Banku-fundazioen datuak**: Erabilitako informazio-iturriak banku-fundazioen eta Kutxabank SAren gobernu korporatiboaren urteko kontuak eta urteko txostenak dira.

- **LEONTIEF:** Fundazioen sektoreak ekonomiaren gainean egiten duen ekarpenaren zeharkako eragina balioesteko, EUSTATek argitaratutako Input-Output tauletako matrize simetrikoan jasotako informazioa aztertu dugu, eta, taula horien gainean, Leontief ereduaren alderantzizko matrizea erabili dugu. Hona hemen formula:

$$L=(I-A)^{-1}$$

Non:
L, Leontiefen alderantzizko matrizea
I, A matrizearen antzeko ordenako alderantzizko matrizea
A, zuzeneko errekerimenduen edo koefiziente teknikoen matrizea

Fundazioen jarduerak ekonomiaren adarretan sortzen duen inpaktu makroekonomikoa deskonposatu egin daiteke, ondorio hauek bereiz aztertzeko:

- Inpaktu zuzena: fundazioen sektoreak berez sortzen duen balioa, ekoizpen edo eskari propioaren eta balio erantsi gordinaren bidez.
- Zeharkako inpaktua: fundazioen sektoreko hornitzaileek sortzen duten balioa, eta, aldi berean, arrastearen bidez sortutakoa, horien hornitzaileen gainean.

Ez da kalkulatu induzitutako inpaktua, hau da, fundazioen sektoreak eta haien hornitzaileek ordaintzen dituzten soldaten bidez sortzen den balioa.

– **Ordainpeko langileen eta boluntarioen datuak:** Langileen eta boluntarioen kopuruari eta haien sexuaren araberako banaketari buruzko datuen iturria da, hain zuzen ere, fundazioek kontuak emateko espedientea irekitzeko formularioan sartu duten informazioa.

– **Patronatuen datuak:** Fundazioen patronatuei buruzko datuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dagoen azken patronatutik atera dira.

Definizioak

Jarraian, txosten hau osatzen duten hiru kapituluetan azaltzen den nomenklatura eta zenbait kontzeptu argitu eta zehaztuko dira:

- **Fundazio ez-aktiboak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren xedapen gehigarriko laugarren atalaren arabera, fundazioa ez-aktibotzat joko da, baldin eta, estatutuak egokitzeari ekin gabe eta horretarako errekerimenduari erantzun gabe, jardunean edo martxan badago edo beste eskabide edo komunikaziorik egin ez badu Fundazioen Erregistroan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea indarrean jarri zenetik.

- **Diru-sarrera erantsia:** Emaitzen kontuko honako atal hauen batura da: jarduera-propioaren diru-sarrerak, salmentak, merkataritza-jardueraren diru-sarrerak, jardueraren beste diru-sarrera batzuk, dirulaguntzak, ekitaldiko gaindikinera pasatutako kapital-legatuak eta dohaintzak, hornidura-soberakinak eta diru-sarrera finantzarioak.

- **Gastu erantsia:** Emaitzen kontuko honako atal hauen batura da: laguntzen ziozko gastua, izakinen hornidurak eta aldakuntza, beste ustiapen-gastu batzuk, amortizazioa, finantza-gastuak eta langileria-gastuak.

- **Helburuetara bideratutako gastua:** Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 30.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, fundazioaren helburuetara bideratutakotzat joko dira aipatu helburuak betetzen lagundu duten gastuak eta inbertsioak, salbu amortizazioetarako zuzkidurak eta narriaduraren ziozko galerak. Era berean, administrazio-gastuak eta diru-

sarrerak lortzeko beharrezkoak direnak ez dira hartuko fundazioaren helburuetara bideratutako gastutzat. Helburuetara bideratutako gastuaren datuak memoria ekonomikoan jasotako jarduera-oharretik hartu dira (fundazioek urtero aurkeztu beharreko kontu-emate espedienteen parte da memoria ekonomikoa).

- **Kalkulu-oinarria:** Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 30.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, fundazioaren helburuak betetzeko bideratu beharko duten zenbatekoaren kalkulu-oinarria fundazioko emaitzen kontuko diru-sarrera guztiek osatuko dute. Oinarri horretatik, diru-sarrerak eskuratzeko beharrezkoak izan diren gastuak baino ez dira kenduko, fundazioaren helburuak lortzeko gastuak izan ezik. Kalkulu-oinarriari buruzko datuak memoria ekonomikoan jasotako jarduera-oharretik hartu dira.

- **Diru-sarrera publikoak:** Diru-sarrera publikoak zehazteko aplikatutako metodologia honako hau izan da:

  - Fundazioen diru-sarrera publikoen iturria, diru-sarrera motari, ente publiko emaileari eta ekitaldian sortutako zenbatekoari buruzko datuei dagokienez, EAEko Fundazioen Erregistroan 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan aurkeztutako kontu-emate espedientea osatzen duen memoria ekonomikoan jasotako informazioa izan da.
  - Sektore publikotik datozen diru-sarreren zenbatekoa ekitaldiko emaitzen kontuan egotzitakoa da, dagokion organismo publikoak noiz eman dituen gorabehera.
  - Diru-sarrera publikoak: Fundazioek ente publikoen eskutik jaso dituzten diru-sarrera guztiak dira, hau da, administrazio publikoek emandako eta fundazioek jasotako finantzaketa publiko osoa. Horrenbestez, finantzaketa publikoaren kontzeptua diru-sarrera publikoen hiru motatan banakatu da, Kontabilitateko Plan Orokorra onartzen duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko definizioetan oinarrituta:
    - Kapitaleko dirulaguntzak: Administrazio publikoek emandakoak, fundazioa ezartzeko edo egitura finkorako (aktibo ez-korronteak), edo

etorkizuneko ekitaldietako gastu espezifikoak edo ustiapen-defizita finantzatzeko.

- Ustiapeneko dirulaguntzak: Administrazio publikoen eskutik jasotako dirulaguntza korronteak, oro har ekitaldiko ustiapenaren defizita konpentsatzeko.
- Sektore publikoaren eskutik jasotako beste diru-sarrera batzuk: Ondasunak besterentzea eta administrazio publikoei zerbitzuak ematea. Diru-sarrera mota hau kontratu edo hitzarmen bidez formalizatu ohi da, eta, txosten honen ondoreetarako, ustiapenerako dirulaguntzatzat jo da, diru-sarrera korronteak diren heinean.

– **Soldata-kostu gordina:** Soldata gordina, fundazioaren kargurako karga sozialak eta fundazioak jasanarazitako beste gastu sozial batzuk.

– **Fundazio bereziak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean fundazio berezien bi mota bereizten dira:

- Banku-fundazioak: Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen Legea (abenduaren 27ko 26/2013 Legea) indarrean jarri ondoren sortutako erakundeak dira. Era honetako fundazioak berariaz aztertzen dira txosten honen 2.4 azpikapituluan. Banku-fundazioen magnitudeak ez dira sartu 2. kapituluko jarduera-arloen araberako gainerako sailkapenetan, banku-fundazio horiek zenbait jarduera-arlo hartzen dituztelako eta ezin direlako horien magnitudeak kategoria bakarrean sailkatu.

- Euskal sektore publikoko fundazioak: Fundazio mota honi buruzko informazioa 2.5 azpikapituluan aurkezten da. Txosten honen helburua ez da EAEko sektore publikoko fundazioak mugatzea, baizik eta sektore publikoak patronatukideen izendapenean duen presentzia aztertzea.

– ***Pay-out*:** Dibidenduak ordaintzera bideratutako emaitzaren ehunekoa adierazten duen ratioa.

– **Balio erantsi gordinaren gaineko inpaktua kalkulatzean erantsitako partidak**:

- Laneko kostuak: Soldatapeko pertsonen ordainsariak edo langileen gastuak, diruz eta gauzaz egindako ordainsari guztiak barne, hots, antolakundeek beren ordainpeko langileei ordaindu behar dizkietenak langileek egindako lanaren truke, kontabilitateko aldian zehar. Soldata eta ordainsariak eta enplegatzailearen kargura egindako gizarte-kotizazioak banatzen dira.
- Dirulaguntzen ondare garbien gaineko beste zerga garbi batzuk: Kontrapartidarik gabeko ordainketa garbiak, administrazio publikoek bildutakoak, ekoizpena eta jabetza zergapetzen dutenak (adibidez, ondasun higiezinen gaineko zerga), ken administrazio publikoek ekoizle egoiliarrei emandako dirulaguntzak, beren ekoizpen-mailetan, prezioetan edo ekoizpen-faktoreen ordainsarietan eragiteko.
- Amortizazioak: Kapital finkoaren kontsumoa, hau da, kapital finkoak erreferentziazko aldian garatutako ekoizpen-jardueraren ondorioz jasandako balio-galera. Establezimenduek beren kapital finkoari tinko eusteko egiten dituzten kontabilitate-amortizazioen bidez kalkulatzen da.

Begi-kolpe batez



1

DATU OROKORRAK



Datu orokorrak

Kapitulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorearen sarrera egingo da, fundazioak zenbatetsi eta horien ezaugarriak deskribatuta. Azterlan honen erreferentziako urtea 2023a izango da, hots, txostena hau egin den datan fundazioek Fundazioen Erregistroan urteko kontuak aurkezteko betebeharra duten azken ekitaldia.

Era berean, fundazioen gardentasun-maila aztertuko da, beren web-atarietan jasotako informazioaren arabera.

1.1 INSKRIBATUTAKO FUNDAZIOAK

Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dauden fundazioen kopurua islatzen da, aktibo daudenak eta ez-aktibotzat jotzen direnak bereizita.

2024ko ekitalditik emango den datu bakarra fundazioen kopurua da, txosten hau argitaratu den datan eskuragarri dagoen erregistro-datua baita. 2024ko abenduaren 31n, Erregistroan inskribatuta ageri diren erakundeak guztira 686 fundazio dira (677 fundazio 2023aren amaieran).

Fundazio ez-aktibotzat jotzen dira azken bederatzi urteetan espedienterik izapidetu ez duten fundazioak. Fundazio bat ez-aktiboa izateko, txosten honen metodologiaren atalean deskribatutako ezaugarriak bete behar ditu.

1. grafikoa. Fundazio aktiboak eta ez-aktiboak



Inskribatutako 686 fundazioetatik 196k betetzen dituzte fundazio ez-aktibotzat jotzeko ezaugarriak eta, beraz, halaxe argitaratu dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2024ko abenduaren 29an. Gainerako 490 fundazioak fundazio aktiboak dira.

Hona hemen azken bi ekitaldietako mugimenduak:

1. taula. Altak/Bajak (eraketak/likidazioak)

TTHH	2022/12/31	Alta ▲	Baja ▼	2023/12/31	Alta ▲	Baja ▼	2024/12/31
Araba / Álava	99	1	1	99	2	0	101
Bizkaia	341	2	1	342	4	1	345
Gipuzkoa	234	3	1	236	5	1	240
EAE	674	6	3	677	11	2	686

Fundazioen kopuruak gora egin du 2024an, 2023 eta 2022ko datuen aldean. 2024ko ekitaldian hamaika fundazio berri eta bi baja egon ziren, eta 2023an, berriz, sei alta eta hiru baja egon ziren. 2024an sortutako fundazioek eremu hauetan garatuko dituzte beren jarduerak: bik Hezkuntzan, batek Teknologian, Ikerketan eta Berrikuntzan, lauk Gizarte Zerbitzuetan eta lauk Beste jarduera-eremu batzuetan.

Fundazioen kopuruak denbora luzeagoan izan duen bilakaera aztertzen bada, ikusten da gora egiten jarraitzen duela: 2014an, 639 fundazio zeuden Erregistroan inskribatuta, eta gaur egun 686; hau da, % 7ko igoera egon da. Igoera garbi hori gorabehera, urteko aldietan altak eta bajak egon dira. Beraz, ekitaldi batzuetan, bajak altak baino gehiago izan direnez, fundazioen kopurua murriztu egin da. Jarraian, azken hamaika urteetan egondako aldakuntzak ageri dira:

2. grafikoa. Inskribatutako fundazioen kopuruaren bilakaera



3. grafikoa. Inskribatutako fundazioen banaketa, lurraldeen arabera



Fundazioak lurralde historikoen arabera aztertuta: Araban 101 fundazio daude inskribatuta, Bizkaian 345 eta Gipuzkoan 240. Hau da, fundazioen % 51 Bizkaiko Lurralde Historikoan daude, Gipuzkoan % 35 eta Araban % 14. Fundazioek urteotan zehar izan duten bilakaera aztertuz gero, nahiz eta fundazioen kopuruak gora egin duen, lurralde historikoetan egondako proportzioak egonkor eutsi dio denboran zehar. Hala, 2014ko ekitaldiko ehunekoak gaur egungoen ia berdinak ziren.

Fundazio aktiboak aztertuz gero, lehen azaldu den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan 2024ko ekitaldian 490 fundazio aktibo daude: 51 Araban, 251 Bizkaian eta 188 Gipuzkoan. Fundazio aktiboen kopurua lurralde historiko bakoitzeko biztanleriarekin alderatuta: Araban EAEko biztanleriaren % 15 dago, eta fundazioak lurralde horretan % 11 inguru dira. Aldiz, Gipuzkoan, EAEko biztanleriaren % 33 dago eta fundazioak % 38 dira. Bizkaia orekatuago dago, EAEko biztanleriaren % 52 hartzen baitu, eta fundazioak % 51 baino zertxobait gehiago dira. Beraz, fundazioen sektorea bereziki esanguratsua da Gipuzkoan.

4. grafikoa. Fundazioak eta biztanleria, lurralde historikoen arabera (%)



Era berean, azterketa 100.000 biztanleko egiten bada, EAEn 22 fundazio daude 100 mila biztanleko. Zenbateko hori Estatukoa baino altuagoa da, azken horretan 20 fundazio baitaude *(Iturria: Espainiako fundazioen informazio finantzarioa eta ez-finantzarioa - KE kontabilitateko ekonomialariak).*

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan 26 fundazio daude 100 mila biztanleko, Bizkaian 22 eta Araban 15.

1.2 FUNDAZIOEN URTEKO KONTUAK

2023ko abenduaren 31n erregistroan inskribatuta zeuden 677 fundazioetatik 477 ziren aktiboak.

Era berean, 379 fundaziok aurkeztu dituzte urteko kontuak 2023ko ekitaldian. Beraz, fundazio aktiboen % 79k bete dute 2023ko ekitaldian kontuak emateko betebeharra.

Nabarmentzekoa da urteko kontuak aurkezten ez dituzten fundazioei Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan zabaldutako erregistro-orria ixten zaiela, eta ez-betetze horren berri ematen dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. 2024ko abenduaren 19ko iragarkiaren bidez (2024ko abenduaren 27an argitaratua EHAAn), 2023ko ekitaldiko kontuak aurkeztu ez zituzten fundazioen zerrenda zabaldu zen, aktibo zeudenak eta ustez aktibo ez zeudenak bereizita. Halaber, urteko kontuak aurkeztu arren errekerimenduak bideratu ez dituzten fundazioen zerrenda ere jaso zen.

2023an, 210 fundaziok aurkeztu dute, urteko kontuekin batera, kanpoko auditoretzaren txostena. Horietatik 35ek beren borondatez egin zuten.

1.3 FUNDAZIO MOTAK: JARDUERA ARLOA, TAMAINA, ANTZINATASUNA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREA

Metodologian aurkeztutako definizioetan ezarri den bezala, txostenean zehar azterketak egiten dira fundazioak batzeko erabili diren **jarduera-arloen** arabera. Ondorioz, beren testuinguruan aztertu ahal izateko, fundazioek zein jarduera garatzen duten eta arlo bakoitzak zenbat fundazio jasotzen dituen argitu beharra dago. Hona hemen:

5. grafikoa. Fundazioen kopurua, jarduera-arloaren arabera



«Beste batzuk» atalean aurreko motetan sartu gabeko jarduerak edo xedeak dituzten askotariko fundazioak batzen dira. Hona hemen:

6. grafikoa. «Beste batzuk» azpiarloko fundazioen kopurua



Bestalde, fundazioak beren jardueren arabera banatzeaz gain, **tamainaren** arabera ere bereizi dira, aurkezten duten urteko gastuaren aurrekontuaren parametroetan oinarrituta.

Hala, aztertutako fundazioetatik % 40 mikroentitateak dira (ekitaldian gastua, guztira, 300.000 eurotik beherakoa izan zen), % 17 tamaina txikiko erakundeak dira (gastuaren zenbatekoa 300.000 eta milioi bat euro bitartekoa izan zen), % 29 ertainak (1 eta 5 milioi euro artean), % 11 handiak (5 eta 25 milioi euro artean) eta % 3 oso handiak (urteko gastuaren aurrekontua 25 milioi eurotik gorakoa da).

7. grafikoa. Fundazioak, tamainaren arabera (%)



Jarduera eta tamainaren arabera egindako sailkapen honez gain, bere ondare-osaeraren arabera ezaugarri zehatzak dituzten fundazio-taldeak daude, esaterako ondare-fundazioak edo finantza-fundazioak. 28 fundazio jotzen dira ondare-fundaziotzat, eta fundazio horiek dituzten helburuak zenbait jarduera-arlotan sailkatzen dira: «gizarte-zerbitzuak eta ikerketa», «pentsamenduaren hedapena» eta «bekak» arloak dira nagusiak. Fundazio horiek gutxi gorabehera 390 milioi euroko kontabilitate-balioko ondarea dute, eta 11,4 milioi euro bideratu dituzte fundazioaren helburuetara.

Fundazio horien batez besteko **antzinatasuna** 27 urtekoa da. Egoitzen arloko fundazioak dira batez besteko antzinatasun handiena dutenak. Horietatik 19 nabarmentzen dira, 50 urte baino gehiago dituztelako. Era berean, fundazio gehienak (% 50) 1996 eta 2012 artean eratu dira.

8. grafikoa. Fundazioen kopurua, antzinatasunaren arabera



Jarraian, fundazioen batez besteko antzinatasuna ageri da, jarduera-arloaren arabera:

2. taula. Fundazioen batez besteko antzinatasuna, jarduera-arloaren arabera

Jarduera-arloa	Batez besteko antzinatasuna (urteak)
Hezkuntza	32
Museoak eta ondare kulturala	20
Nazioarteko lankidetza	17
Egoitzak	94
Gizarte-zerbitzuak	23
Banku-fundazioak	9
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	17
Beste batzuk:	21
Kirolak	16
Euskara	19
Ingurumena	10
Osasuna	29
Arte eszenikoak	17
Inguruko garapen sozioekonomikoa	21
Azterketak, pentsamenduaren hedapena eta bekak	23
BATEZBESTEKOA	**27**

Fundazio berrienak, hau da, azken 10 urteetakoak, 110 izan dira, hots, aztertutako fundazio guztien % 25. Horietako gehienek pentsamenduaren azterketa eta hedapena, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza bezalako jarduerak egiten dituzte.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (**ZTBES**) ikerketa, garapen eta berrikuntzako entitateen multzo bat da. Hala, sarean lan eginez, I+G+B arloko hainbat jarduera garatzen dituzte, modu orekatuan, ikerketa espezializatua eta bikaina eginez, EAEn aberastasuna eta ongizatea sortzen lagundu ahala.

ZTBESko eragileen erregistro publikoak duen informazio publikoan (hirugarrenentzat eskuragarri dagoena) eragile bakoitzaren identifikazio-datuak ageri dira, haien ikerketa-arloekin, aplikazio-eremuekin, akreditazioari buruzko datuekin eta erregistroko inskripzio-datarekin batera.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 139 eragileetatik 35 dira fundazioak; horietatik 3 Araban

daude, 18 Bizkaian eta 14 Gipuzkoan. Jarduera gehienak (26) teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren arlokoak dira, baina bederatzik beste arlo batzuetan jarduten dute:

9. grafikoa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko fundazioak



1.4 GARDENTASUNA

*Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea*ren 3.b) artikuluaren arabera, 2.1.h) artikuluan ezarritako sektore publikoko fundazioez gain, lege horren II. kapituluan aurreikusitako publizitate aktiboko xedapenak bete behar dituzte honako hauek: «*urtebetez 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreren % 40 —5.000 euroko minimoarekin—, gutxienez, laguntza edo dirulaguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak*».

EAEko fundazioen % 67k dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenez beren jarduerak garatzeko, beharrezkoa da era honetako entitateek neurriak hartzea, gardentasunaren gaineko betebeharrak bete behar dituen informazioa dagokion web-orrietan argitaratu dadin, modu argian, egituratuan eta ulergarrian. Gainera, 2023ko ekitaldian, aztertutako fundazioen erdiek 100.000 eurotik gorako jatorri publikoko diru-sarrerak izan dituzte; beste % 5ek, berriz, zenbateko txikiagoko dirulaguntzak jaso arren, dirulaguntza horiek urteko diru-sarreren % 40 baino gehiago izan dira. Horrenbestez, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, EAEko fundazioen % 55 19/2013 Legearen betebeharpeko subjektutzat hartzen da.

Atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioek gardentasunaren arloan dituzten betebeharren betearazpen-maila aztertzen da, beren web-orrietan argitaratutako informazioa oinarri hartuta, hartara ateratako emaitzak abiapuntu moduan har daitezen hobekuntza-arloak ezartzeko.

Gardentasun-maila zenbatesteko, oinarrizko lehen sailkapen bat egiten da, fundazioak web-orri propioa duen ala ez kontuan izanda. Ondoren, web-orrian zein informazio mota argitaratzen den egiaztatzen da. Txosten honetan aztertutako fundazioetatik % 78k daukate web-orria. Gainerako % 22ak ez dauka presentziarik Interneten.

10. grafikoa. Web-orria



Web-orria duten fundazioen gardentasun-maila zehazteko, zazpi adierazle ezarri dira, informazio orokorrari nahiz ekonomikoari buruzkoak:

1. Gardentasunari buruzko atal espezifiko bat dago.
2. Estatutuak argitaratzen dira.
3. Patronatua osatzen duten pertsonak identifikatzen dira.
4. 2023ko ekitaldiko urteko kontuak argitaratu dira.
5. Aurreko ekitaldietako urteko kontuak argitaratu dira (2020tik 2022ra).
6. 2023ko ekitaldiko auditoretza-txostena argitaratu da.
7. 2024ko ekitaldirako onartutako aurrekontuari buruzko informazioa ematen da.

Bigarren adierazleari dagokionez, esan beharra dago inskribatutako fundazioen estatutuak EAEko Fundazioen Erregistroaren web-orrian argitaratuta daudela.

11. grafikoa. Batez besteko nota gardentasunean



Aurreko adierazleetako bakoitzeko puntu bat ematen da. Hartara, puntuazioa zenbat eta handiagoa izan, fundazioa gardenagoa izango da. Aldiz, puntuazio txikiagoa duten fundazioak opakuagoak direla ulertuko da. Egindako azterketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioek gardentasunean hobetzeko marjina dute. Izan ere, atera den batez besteko emaitza 1,74 puntukoa da 7tik.

Fundazioen % 40k beren helburuak eta jarduerak jakinarazteko tresna gisa soilik erabiltzen dute web-orria, hau da, zazpi adierazleetako bat ere sartu gabe bere web-orrian. Beraz, puntuaziorik eskuratu ez dutenez, opakutzat jotzen dira. Batezbesteko orokorra ez da bi puntura iristen.

Aztertutako fundazioak lortutako notaren arabera banatzen badira, nabarmentzekoa da % 21ek gainditu dutela (gainditutzat jotzen da 7 puntutik 4 edo gehiago lortuz gero).

12. grafikoa. Lortutako puntuazioa (%)



Hurrengo grafikoan banan-banan aztertzen da aurreko adierazleak web-orrietan ote dauden; azpimarratzekoa da gehien agertzen diren aldagaiak patronatuarekin, gardentasunarekin eta estatutuekin lotutakoak direla; zehazki, % 48 dira patronatua osatzen duten pertsonak identifikatzen dituztenak. Aitzitik, aztertutako web-orrien % 36k gardentasunaren atal espezifiko bat duten arren, fundazioen % 20k baino gutxiagok ematen dute informazio ekonomikoa bertan, batez ere aribideko ekitaldirako onartutako aurrekontuari buruzkoa.

13. grafikoa. Adierazle bakoitza betetzen duten fundazioen kopurua (%)



Azkenik, sektore publikoak patronatukideren bat izendatzeko gaitasuna duen fundazioetan, antzeman da adierazleen betetze-maila altuagoa dela. Hau da, sektore publikoek izendatutako pertsonen ehunekoa zenbat eta handiagoa izan fundazioen patronatuan, orduan eta gardenagoak dira fundazioak.

3. taula. Sektore publikoak izendatutako patronatukideak dituzten fundazioen betetze-maila (%)

Adierazlea	Betetze-maila			
	Orokorra	Sektore publikoak izendatutako patronatukideen %-a		
		% 0	% 1 - % 49	≥% 50
Gardentasunaren ataria	% 36	% 26	% 46	% 66
Estatutuak	% 31	% 23	% 35	% 55
Patronatukideak	% 48	% 35	% 65	% 75
Urteko kontuak, 2023	% 18	% 13	% 27	% 32
Urteko kontuak, 2020-2022	% 16	% 11	% 25	% 29
Auditoretza-txostena, 2023	% 17	% 12	% 27	% 27
2024. urteko aurrekontua	% 7	% 3	% 8	% 23

% 0-% 14	% 15-% 29	% 30-% 43	% 44-% 57	% 58-% 71	% 72-% 86	% 87-% 100

2

MAGNITUDE EKONOMIKOAK



Magnitude ekonomikoak

Fundazioen magnitude ekonomikoen azterketa egite aldera, kapitulu honetan fundazioen diru-sarrerak, gastuak eta ondare-egoera eta gizarteari ematen dioten balioa aztertuko dira. Informazio hori 2023ko ekitaldiari nahiz azken ekitaldietako adierazle nagusien bilakaerari buruzkoa da.

Gainera, magnitude ekonomiko nagusien banakapena ageri da, jarduera-arloaren, tamainaren eta lurralde historikoaren arabera, irakurleak informazio erabilgarri eta esanguratsua jaso dezan EAEko fundazioen sektoreari buruz.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legean fundazio berezi moduan izendatzen diren fundazioen inpaktu ekonomikoa aztertu da: banku-fundazioak eta euskal sektore publikoko fundazioak.

Azkenik, emaitzen kontuen azterketa zehatza egin da, EAEko fundazioen ekarpen ekonomiko eta soziala ezagutzeko. Zehazki, KSE 2010eko irizpide orokor metodologikoa hartu da oinarri moduan. Bertan, balio erantsi gordinari eta barne-produktu gordinari ekarpen zuzena egiten dioten magnitude ekonomikoak aztertzen dira. Era berean, *stakeholder*-en teoriaren eta kontabilitate sozialaren ereduaren esparruan, unitate monetariotan kalkulatu da fundazioen sektoreko euskal antolakundeek beren interes-taldeei helarazten dieten balioa, kontuan hartuta merkatuko jardueraren inpaktua (ondasun eta zerbitzuen sorrera, sortutako enplegua, ordaindutako zergak eta abar), zeina balio erantsia kalkulatuz eta hura interes-taldeetan nola banatzen den aztertuz ateratzen baita.

Horretarako, honela banakatu da kapitulua:

2.1 **Diru-sarrerak:** Diru-sarreren jatorri publiko edo pribatuari buruzko informazioa jasotzen da, dirulaguntza jaso duten administrazio publikoei buruzko informazioa barne.

2.2 **Fundazioaren helburuetara bideratutako gastua**, *per capita* gastua eta gastu horren helmuga barne.

2.3 Fundazioen **ondare- eta finantza-egoera**, erantsitako gastuarekin batera.

2.4 **Banku-fundazioak.**

2.5 **Sektore publikoa fundazioetan**: sektore publikoak izendatutako patronatukideak.

2.6 **Fundazioen sektoreak balio erantsi gordinari eta barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena.**

2.7 **Sortutako merkatuko balio sozialaren monetizazioa.**

2.1 DIRU-SARRERAK

Fundazioek 2023ko ekitaldian sortutako diru-sarreren bolumena 1.561 milioi eurokoa izan da. Diru-sarrera horietatik % 58 finantzaketa pribatua izan da, eta % 42, jatorri publikokoa. Atal honetan, fundazioen finantzaketa-bide nagusiak aztertuko dira, eta informazio hori banakatuta emango da jarduera-arloaren, entitate emailearen, tamainaren eta lurralde historikoaren arabera.

14. grafikoa. Diru-sarrera publiko eta pribatuen banaketa



Aipatzekoa da diru-sarrerek goranzko joera dutela eta fundazioen sektoreak 2023an, balio nominaletan, bere historiako diru-sarrera onenak lortu dituela.

Fundazioen finantzaketa pribatua iturri hauetatik dator: diru-sarrera finantzarioak, oinordetzak, dohaintza pribatu erregular edo noizbehinkakoak, erabiltzaileen kuotak, zerbitzu-prestazioak eta produktuen salmentak.

Administrazio publikoek emandako dirulaguntzen bitartez fundazioek egiten dituzten jardueren zati handi bat finantzatzen da. Fundazioek interes orokorreko helburuak bete behar dituzte; gizartearen beharren araberako zerbitzuak ematen dituzte, eta beren jarduerek pertsona fisiko edo juridikoen kolektibitate orokorrei mesede egin behar diete. Horregatik, administrazio publikoek, emandako laguntzen bidez, fundazioek arlo desberdinetan ematen dituzten zerbitzuak sustatzen dituzte, besteak beste adinekoen egoitzetan, ikerketan, museoetan edo ondare kulturalean.

15. grafikoa. Diru-sarreren ehunekoa, finantzaketa motaren arabera (%)



Era berean, fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, beren inguruarekin benetako konpromiso bat dutenak; agerikoa da hori, diru-sarrerek lurralde

historikoan duten pisuari erreparatuz gero. Aitzitik, jatorri pribatu eta publikoetatik datozen diru-sarreren ehunekoa aztertuz gero, Gipuzkoak jasotzen du finantzaketa pribatuaren ehuneko txikiena.

16. grafikoa. Diru-sarreren banaketa, lurralde historikoen arabera (eurotan eta %-tan)



Hala ere, lurraldeek *per capita* sortzen dituzten diru-sarreren azterketak garrantzi handiagoa du diru-sarreren bolumenaren arabera egindako azterketak baino. Izan ere, hala, banakakoak lurralde-mailan sortzen dituen diru-sarrerak beha daitezke. Hori horrela, biztanleen udal-estatistikako 2023ko abenduaren 31ko datuen arabera (EUSTATek aurkeztutakoak), *per capita* diru-sarrerak lurraldeen arabera eta guztira EAEn honako hauek dira:

17. grafikoa. Per capita diru-sarrerak (eurotan)



Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika 2023-12-31n

Bestalde, finantzaketa-iturriak jarduera-arloen arabera aztertze aldera, hurrengo grafikoak ehuneko publiko-pribatua islatzen du, fundazioek jasotzen duten finantzaketarekin lotuta. Emaitzak desberdinak dira, fundazioak egiten duen jardueraren arabera. Hala, jarduera-arlo gehienetan, finantzaketa publikoaren eta pribatuaren artean oreka ageri da. Aldiz, hezkuntza, teknologia, ikerketa eta garapena eta garapenerako lankidetzaren arloetan diru-sarrera publikoak gailentzen dira. Bestalde, gizarte-zerbitzuen fundazioak nabarmentzen dira, horietan diru-sarrera publikoen ehunekoa nabarmen txikiagoa baita diru-sarrera pribatuena baino.

18. grafikoa. Finantzaketa publiko eta pribatuaren ehunekoa, jarduera-arloen arabera (%)



Beste ikuspegi batetik, fundazioen tamaina kontuan hartuta, publikoaren eta pribatuaren arteko haztapenak oro har ez du desoreka nabarmenik islatzen. Hala, fundazio mikrotzat eta txikitzat jotzen diren fundazioek finantzaketa pribatuko % 60tik % 40ra arteko haztapena dute, finantzaketa publikoaren aldean. Fundazio ertain eta handien oreka doiagoa da ehunekotan. Alde handiena fundazio oso handietan ageri da, finantzaketa pribatua % 64ra igotzen baita, jatorri publikoko % 36aren aldean.

Finantzaketa publikoa

Diru-sarreren ehuneko publiko eta pribatuak fundazioen jarduera-arloaren eta tamainaren arabera aztertu ondoren, jarraian, fundazioek jasotzen dituzten dirulaguntza publikoak aztertuko ditugu. Hala, 2023an zehar, fundazioek erakunde publikoen ekarpenak jaso dituzte, 655 milioi eurotan. Jarraian, emandako dirulaguntza publikoak islatzen dira, kopuru horren helmuga ezagutzeko, jarduera-arloaren, fundazioaren tamainaren, administrazio publiko emailearen eta lurralde historikoaren arabera.

Banakapenekin hasi baino lehen, ekitaldian zehar dirulaguntza publikoak jaso dituzten fundazioen bolumena ezagutu behar da. Fundazioen % 67k erakunde publikoen diru-sarrerak jaso dituzte, eta gainerako fundazioen % 33ak ez du ekarpen publikorik jaso.

19. grafikoa. Diru-sarrera publikoen ehunekoa, tamainaren arabera (%)



Fundazioen tamainari erreparatuz gero, diru-sarrera publikoen ehunekoa, tamainaren arabera banatuta, diru-sarrera publiko guztien aldean, jarraian azaltzen den grafikoan ageri dena da.

Pentsatzekoa da fundazioaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta diru-sarrera publiko gehiago jasoko duela. Hori horrela, fundazioek jasotzen dituzten diru-sarrera publikoko 655 milioi euroetatik 274 milioi bideratzen dira tamaina handiko fundazioetara, eta soilik 21 milioi jasotzen dituzte tamaina txiki eta mikroko fundazioek, hau da, diru-sarrera publiko guztien % 3. Beraz, tamaina handiko fundazioek finantzaketa publiko handiagoa jasotzen dute.

Jarraian, diru-sarrera publikoak jarduera-arloaren arabera zehazten dira. 2023ko ekitaldian fundazioei eman zaizkien diru-sarrera publiko guztietatik honako hauek izan dira jarduera bakoitzaren ehunekoak:

20. grafikoa. Diru-sarrera publikoak, jarduera-arloaren arabera (eurotan eta %-tan)



Ikusten den bezala, teknologia, ikerketa eta berrikuntzarekin lotutako jarduerek emandako diru-sarrera publikoen % 40 jasotzen dute.

Erakunde publikoek aurrekontuen kargura ematen dituzte dirulaguntza publikoak, autonomia-erkidego, lurralde, toki, estatu edo Europa mailan. Horregatik, interesgarria da lehen aipatutako 655 milioi euroak aletzea, ez soilik tamainaren edo helburu dituzten jarduera-arloen arabera, baita entitate publiko emaileen arabera ere.

Kontuan hartu behar da dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten 260 fundazioetatik 70 inguruk organismo bakarraren laguntza jasotzen duela. 70 fundazio horiek jasotako dirulaguntzen % 60 gutxi gorabehera Eusko Jaurlaritzak ematen ditu. Era berean, dirulaguntzak jasotzen dituzten fundazioen % 59k 2-4 organismoren eskutik jasotzen dituzte. Finantzatzaile nagusiak berriz ere hauek dira: Eusko Jaurlaritza (fundazioen % 56tan du presentzia) eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak, % 15 eta % 13ko presentziarekin, hurrenez hurren. Azkenik, lau organismo publikoren baino gehiagoren dirulaguntza jasotzen duten fundazioak % 14 inguru dira. Horietatik, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren arloko fundazioek dute organismo finantzatzaile gehien.

Laguntzak ematen dituzten erakunde publikoei buruzko azterketa eginez gero, ikusten da Eusko Jaurlaritza dela finantzatzaile nagusia, hark ematen baitu fundazioei emandako laguntza publiko guztien % 54.

21. grafikoa. Dirulaguntza publikoen ehunekoa, entitate publiko emaileen arabera (%)



Dirulaguntza publikoak aztertzen jarraituta, behin dirulaguntza publikoak entitate emaileen eta jarduera-arloaren arabera sailkatuta daudela, interesgarria da batera aztertzea aurreko bi grafiko zirkularrak. Horretarako, jarraian fundazioek jasotzen dituzten diru-sarrera publikoak batuko dira, jarduera-arlo bakoitzaren arabera banakatuz laguntza horiek eman dituzten entitate publikoak eta diru-sarrera publikoek pribatuen aldean daukaten pisua:

22. grafikoa. Jasotako dirulaguntza publikoak, jarduera-arloaren eta entitate publiko emailearen arabera (eurotan)






Pribatuak %40 %60 Publikoak
Garapenerako lankidetza:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 18.815.769 €
EJ 4.177.332 € % 23
AFA - € % 0
BFA 1.024.674 € % 5
GFA 463.661 € % 2
EAEko Toki-erakundeak 7.425.992 € % 39
Estatua 3.561.348 € % 19
Europa 556.770 € % 3
Beste erakunde publiko batzuk 1.605.992 € % 9


Pribatuak %48 %52 Publikoak
Egoitzak:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 75.356.752 €
EJ 15.890.424 € % 21
AFA 1.356.937 € % 2
BFA 20.284.042 € % 27
GFA 32.792.442 € % 44
EAEko Toki-erakundeak 3.365.054 € % 4
Estatua 1.645.877 € % 2
Europa 6.500 € % 0
Beste erakunde publiko batzuk 15.476 € % 0


Pribatuak %68 %32 Publikoak
Gizarte-zerbitzuak:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 74.775.828 €
EJ 23.946.502 € % 32
AFA 2.766.776 € % 4
BFA 22.565.855 € % 30
GFA 19.821.052 € % 27
EAEko Toki-erakundeak 4.296.631 € % 5
Estatua 417.225 € % 1
Europa 113.429 € % 0
Beste erakunde publiko batzuk 848.358 € % 1


Pribatuak %37 %63 Publikoak
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 260.838.173 €
EJ 144.609.381 € % 56
AFA 990.430 € % 0
BFA 16.551.782 € % 6
GFA 15.305.529 € % 6
EAEko Toki-erakundeak 1.277.493 € % 0
Estatua 22.832.609 € % 9
Europa 57.391.126 € % 22
Beste erakunde publiko batzuk 1.879.823 € % 1



Jarduera-arloekin jarraituz, eta aurreko grafikoen osagarri den ekitaldi bat egite aldera, hurrengo tauletan dirulaguntza publikoak eman dituen organismo bakoitzaren arabera zehazten dira finantzaketa publiko gehien eskuratu duten jarduera-arloak.

Hala, ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzen % 41ek, Estatuak ematen dituenen % 73k eta Europar Batasunak ematen dituenen % 96k teknologia, ikerketa eta berrikuntzako jarduerak finantzatzen dituztela.

Bestalde, foru-aldundiei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzen % 33 bideratzen du museo eta ondare kulturalarekin lotutako jardueretara, Bizkaiko Foru Aldundiak % 29 bideratzen du gizarte-zerbitzuetara eta beste % 26 egoitzetara, eta Gipuzkoako Aldundiak % 42 bideratzen du egoitzetara.

Udalek, berriz, batez ere garapenerako lankidetza finantzatzen dute (% 22), bai eta beste jarduera-arlo batzuk ere (% 20). Azpitalde horretan arte eszenikoak dira nagusi.

4. taula. Emandako dirulaguntzen banakapena, entitate publiko emailearen eta jarduera-arloaren arabera (eurotan)

Erakunde Finantzatzailea	EJ	
Guztira emandako dirulaguntzak	355.668.350	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	144.609.381	41%
Hezkuntza	85.839.343	24%
Beste batzuk (*)	68.713.119	19%
Gizarte-zerbitzuak	23.946.502	7%
Egoitzak	15.890.424	4%
Museoak eta ondare kulturala	12.492.249	4%
Garapenerako lankidetza	4.177.332	1%

(*)
- Osasuna: 32.976.969 € 48%
- Ingurunearen garapen sozio-ekonomikoa: 20.872.200 € 30%

Erakunde Finantzatzailea	AFA	
Guztira emandako dirulaguntzak	10.661.394	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Museoak eta ondare kulturala	3.473.060	33%
Gizarte-zerbitzuak	2.766.776	26%
Beste batzuk	1.513.306	14%
Egoitzak	1.356.937	13%
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	990.430	9%
Hezkuntza	560.885	5%
Garapenerako lankidetza	0	0%

Erakunde Finantzatzailea	BFA	
Guztira emandako dirulaguntzak	78.570.700	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Gizarte-zerbitzuak	22.565.855	29%
Egoitzak	20.284.042	26%
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	16.551.782	21%
Beste batzuk	9.436.877	12%
Museoak eta ondare kulturala	7.914.215	10%
Garapenerako lankidetza	1.024.674	1%
Hezkuntza	793.255	1%

Erakunde Finantzatzailea	GFA	
Guztira emandako dirulaguntzak	78.859.826	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Egoitzak	32.792.442	42%
Gizarte-zerbitzuak	19.821.052	25%
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	15.305.529	19%
Beste batzuk	5.355.584	7%
Hezkuntza	2.763.133	3%
Museoak eta ondare kulturala	2.358.425	3%
Garapenerako lankidetza	463.661	1%

Erakunde Finantzatzailea	EAEko Toki-erakundeak	
Guztira emandako dirulaguntzak	33.444.911	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Garapenerako lankidetza	7.425.992	22%
Beste batzuk (*)	6.528.145	20%
Museoak eta ondare kulturala	6.041.356	18%
Hezkuntza	4.510.240	13%
Gizarte-zerbitzuak	4.296.631	13%
Egoitzak	3.365.054	10%
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	1.277.493	4%

(*)
- Arte eszenikoak: 2.870.436 € 44%
- Ingurumena: 1.071.205 € 16%

Erakunde Finantzatzailea	Estatua	
Guztira emandako dirulaguntzak	31.280.961	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	22.832.609	73%
Garapenerako lankidetza	3.561.348	12%
Egoitzak	1.645.877	5%
Hezkuntza	1.324.836	4%
Museoak eta ondare kulturala	923.679	3%
Beste batzuk	575.387	2%
Gizarte-zerbitzuak	417.225	1%

Erakunde Finantzatzailea	Europa	
Guztira emandako dirulaguntzak	60.096.877	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	57.391.126	96%
Beste batzuk	1.642.738	3%
Garapenerako lankidetza	556.770	1%
Hezkuntza	276.780	0%
Gizarte-zerbitzuak	113.429	0%
Museoak eta ondare kulturala	109.534	0%
Egoitzak	6.500	0%

Erakunde Finantzatzailea	Beste erakunde publiko batzuk	
Guztira emandako dirulaguntzak	5.869.278	
Jarduera-eremua	**Zenbatekoa**	**%**
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	1.879.823	32%
Garapenerako lankidetza	1.605.992	27%
Beste batzuk	1.025.012	18%
Gizarte-zerbitzuak	848.358	15%
Hezkuntza	493.216	8%
Egoitzak	15.476	0%
Museoak eta ondare kulturala	1.401	0%

Azkenik, lurralde historiko bakoitzean jasotako dirulaguntza publikoen azterketa ageri da, horiek finantzatzen dituzten erakundeak bereizita:

23. grafikoa. Dirulaguntzak lurralde historikoen eta ente finantzatzailearen arabera (eurotan eta %-tan)



Bestalde, eta txosten honen metodologiaren atalean aipatzen den gisan, dirulaguntza publikoen sailkapen bat kapitaleko dirulaguntzak eta ustiapeneko dirulaguntzak bereizten dituena da. Kontuan hartuta ustiapeneko dirulaguntzak ekitaldiko gastuak ordaintzen dituztenak direla, pentsatzekoa da horiek nabarmen handiagoak izango direla, salbuespenak salbuespen, kapitaleko dirulaguntzak baino, aktiboaren inbertsioak finantzatzearekin lotuta baitaude.

EAEko fundazioen kasuan, diru-sarrera publikoen % 95 ustiapeneko dirulaguntzak dira. Gainerako % 5a kapitaleko dirulaguntzak dira. Era berean, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritza dela emandako ustiapeneko dirulaguntzen finantzatzaile nagusia, horien erdia baino gehiago organismo horretakoak baitira.

Kapitaleko dirulaguntzetan, Eusko Jaurlaritza (% 38) eta Estatuko Gobernua (% 29) dira batez ere dirulaguntza horiei lotutako inbertsioak finantzatzen dituztenak.

24. grafikoa. Dirulaguntza mota eta dirulaguntza mota erakunde finantzatzailearen arabera (eurotan eta %-tan)



Kontuen Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 2/2021 Errege Dekretuak ezarritakoari dagokionez, bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Europar Batasunaren funtsen edo administrazio publikoen aurrekontuen kargura 600.000 eurotik gorako zenbateko metatua duten laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateen betebeharra izango da ekitaldi horretako eta aipatu dirulaguntza edo laguntzen inbertsioak egiten dituzten edo eragiketak gauzatzen dituzten ekitaldietako urteko kontuak ikuskatzea.



Horrenbestez, 2023ko ekitaldian dirulaguntza publikoak jaso dituzten fundazio guztietatik 127k jaso dituzte 600 mila eurotik gorako balioa duten ekarpenak. Fundazio horien % 100 ikuskatu dira, araudian ezarritakoaren arabera.

2020-2023 bilakaera

Jarraian, fundazioek 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan sortu dituzten diru-sarreren bilakaera ageri da, jasotako diru-sarrera pribatuak eta diru-sarrera publikoak bereizita:

25. grafikoa. Fundazioen diru-sarreren bilakaera 2020-2023an (eurotan)



Ikusten den bezala, diru-sarrera pribatuek hazkunde altua izan dute azken lau ekitaldietan, eta bikoiztu egin da haien zenbateko gordina. Hala, 2020ko ekitaldian pandemiaren eta hari lotutako murrizketen ondorioz jasandako jaitsieraren ondoren, guztiz berreskuratu dira. Ekitaldi horretan, fundazioek aurreko ekitaldian baino % 39 diru-sarrera pribatu gutxiago jaso zituzten, eta 2021eko eta 2022ko ekitaldietan, berriz, urteko % 46 inguruko igoera gertatu da: 2020an 391 milioi sarrera pribatu izatetik, 2022an 830 milioi euro izatera igaro dira. 2023ko ekitaldian % 9ko igoera gertatu da; era horretan, eutsi egin zaio goranzko joerari, azken ekitaldietakoa baino txikiagoa bada ere, finantza-sarrerek izan duten jaitsieragatik.

Diru-sarrera publikoek, bestalde, urteko goranzko joera neurtua izan dute, finantzaketa pribatuak izan dituen datuen aldean. Hala ere, 2023ko ekitaldian igoera % 6koa izan da aurreko ekitaldiaren aldean. Aldiz, 2022ko ekitaldiko igoera, 2021ekoaren aldean, % 11koa izan zen, eta 2021ekoa, 2020koaren aldean, % 8koa.

Hori guzti hori dela eta, administrazio publikoek 2023an lau urte lehenago egiten zituztenak baino ekarpen publiko gehiago finantzatu dituzte (% 27 gehiago), hurrengo grafikoan ikusten den bezala.

26. grafikoa. Emandako dirulaguntzen bilakaera 2020-2023an (eurotan)



Entitate publiko emaileak emandako dirulaguntzen bilakaera aztertzen bada, datuek azken urteetan igoera nabarmena ageri dute, bai Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenen bai foru-aldundiek egindakoen ondorioz.

27. grafikoa. 2020-2023an emandako dirulaguntzen bilakaera, entitate emailearen arabera (eurotan)



Aurreko grafikoa aletzeko eta entitate publiko bakoitzak emandako dirulaguntzetan izan duen bilakaera aztertzeko, jarraian azaltzen diren diagramak aurkeztu ditugu. Horietan, laburbilduta ageri da azken lau urteetan jasandako aurrerapena:

28. grafikoa. 2020-2023an emandako dirulaguntzen bilakaera, jarduera-arloaren arabera (eurotan)



Amaitzeko, jarraian ageri den grafikoak ekarpen publikoek azken lau urteetan bizi izan duten bilakaera islatzen du, jarduera-arloaren arabera. Hala, azken ekitaldian, gizarte-zerbitzuko jarduerak egiten dituzten fundazioek jaso dituzten dirulaguntza publikoak % 23 igo dira aurreko ekitaldiaren aldean. Hezkuntzako jarduerek eta teknologia, ikerketa eta berrikuntzakoek, berriz, % 9 eta % 7ko gehikuntzak izan dituzte, hurrenez hurren. Gainerako jarduerek egonkor segitu dute.

29. grafikoa. 2020-2023an emandako dirulaguntzen bilakaera, jarduera-arloaren arabera (eurotan)



2.2 FUNDAZIOAREN HELBURUETARA BIDERATUTAKO GASTUA

Fundazioen diru-sarrerak aztertu ondoren, jarraian fundazioaren helburuetara bideratutako gastuarekin lotutako magnitude nagusiak banakatuko ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 30.1 artikuluaren arabera, fundazioek fundazioaren helburuetara bideratu beharko dute, gutxienez, garatzen dituzten jarduerengatik edo ematen dituzten zerbitzuengatik eskuratzen duten diru-sarreren ehuneko hirurogeita hamar (% 70).

Horretarako, kontuan hartuko dira fundazioaren helburuetara bideratutako gastuak eta kalkulu-oinarria. Hau da, alde batetik, fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarrerek osatzen dute kalkulu-oinarria, diru-sarrerak lortzeko beharrezko gastuak soilik kenduta. Bestalde, helburuetara bideratutako gastuak dira fundazioaren helburuak betetzen benetan lagundu duten gastuak eta inbertsioak, salbu amortizazioetarako zuzkidurak eta narriatzeak eragindako galerak, administrazioaren gastuak kontuan hartu gabe.

Jarraian, fundazioen magnitude nagusiak laburbiltzen dira, kalkulu-oinarria eta helburuetara bideratutako gastua irizpidetzat harturik. Aldagai horiek aztertzeko, ondare garbia sartu da, bai eta helburuetara bideratutako gastua kalkulu-oinarriarekin eta ondare garbiarekin lotzen duten ratioak ere:

5. taula. Helburuetara bideratutako gastua, ondare garbiaren gainean, jarduera-arloaren arabera (eurotan eta %-tan)

	MAGNITUDE EKONOMIKOA				
Jarduera-arloa	**Helburuetara bideratutako gastuak**	**Kalkulu-oinarria**	**Bideratutako gastua / Kalkulu-oinarria**	**Ondare garbia**	**Bideratutako gastua / Ondare garbia**
Hezkuntza	134.593.544	140.703.623	% 96	166.026.847	% 81
Museoak eta ondare kulturala	72.552.710	75.852.231	% 96	196.957.279	% 37
Garapenerako lankidetza	28.082.321	30.430.582	% 92	60.961.170	% 46
Egoitzak	89.995.490	95.378.170	% 94	163.661.851	% 55
Gizarte-zerbitzuak	204.853.897	217.645.994	% 94	388.131.546	% 53
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	417.801.725	405.002.530	% 103	457.844.647	% 91
Bestelakoak	193.745.443	205.571.805	% 94	389.190.975	% 50
GUZTIRA	**1.141.625.130**	**1.170.584.935**	**% 98**	**1.822.774.315**	**% 63**

Aurreko taulan ikusten denez, kalkulu-oinarriaren % 98 helburuetara bideratu da, nola gastu moduan, hala inbertsio moduan. Gainera, fundazioaren sektoreak bere ondarearen % 63 bideratzen du urte bakoitzaren amaierara, 2022ko ekitaldiko % 58 baino bost puntu gehiago. Gorakada horren arrazoia da fundazioen sektoreak helburuetara bideratu duen gastua ondarea baino gehiago handitu dela.

Hurrengo grafikoan, jarduera-arlo bakoitzeko fundazioaren helburuetara bideratutako gastua ageri da. Helburuetara bideratutako gastua da fundazioen aldagairik garrantzitsuena. Izan ere, fundazioek gizarteari sortzen dioten balioaren neurgailu nagusia da. Bere helburuetara baliabide gehien bideratzen duen arloa teknologia, ikerketa eta berrikuntzarena da (418 milioi euro), ondoren gizarte-zerbitzuena (205 milioi euro) eta hezkuntzarena (135 milioi euro). Nabarmentzekoa da gizarte-zerbitzuen eremuak eta teknologia, ikerketa eta berrikuntzarenak % 10eko eta % 15eko hazkundeak izan dituztela, hurrenez hurren, 2023an. Alabaina, garapenerako lankidetzara bideratutako gastua % 3 murriztu da 2022aren aldean.

30. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, jarduera-arloaren arabera (eurotan)



Jarraian, ehunekoa aztertuko dugu: kalkulu-oinarriaren gainekoa eta helburuetara bideratutako gastu horrek sortzen duen ondare garbiaren gainekoa. Hurrengo grafikoan, jarduera-arlo bakoitzeko fundazioaren helburuetara bideratutako diru-sarreren helmugaren ehunekoa zehazten da. Adierazle horrek helburuetara

bideratzen diren diru-sarreren ehunekoa neurtzen du, zeinak % 70etik gorakoa izan behar baitu. Ildo horretan, arlo guztiek % 90etik gora bideratzen dute fundazioaren helburuetara. Nabarmentzekoa da teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren eremuak kalkulu-oinarriaren % 100etik gora bideratzen duela.

31. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, kalkulu-oinarriaren gainean, jarduera-arloaren arabera (%-tan)



Hurrengo grafikoan, helburuetara bideratutako gastuaren ehunekoa zehazten da, ondare gabiaren gainean, jarduera-arlo bakoitzean. Adierazle horrek fundazioaren ondarearen gizarte-errentagarritasuna neurtzen du. Azpimarratzekoa da, batetik, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren jarduera-arloak nahiz hezkuntzaren jarduera-arloak ondare garbiaren % 80tik gora bideratzen dutela helburuetara. Bestalde, museoen eta ondare kulturalaren arloak ondare garbiaren % 37 bideratzen du helburuetara, fundazio batzuen ibilgetuaren balio handiaren ondorioz.

32. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, ondare garbiaren gainean, jarduera-arloaren arabera (%-tan)



Hurrengo atalak EAEko fundazioen sektoreko magnitude nagusiak aztertuko ditu, lurralde historikoen arabera. Daturik esanguratsueneko bat da Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioaren helburuetara bideratutako *per capita* gastua, 2023an, 543 eurokoa izan zela; hori horrela, % 8ko hazkundea egin zen aurreko ekitaldiaren aldean. Gainera, fundazioen sektorearen ondarea, biztanleko, 3.561 eurokoa izan zen; hots, 2022koa baino % 4,2 handiagoa. Jarraian, lurralde historikoen arabera banakatu dira per capita datuak:

33. grafikoa. Fundazioaren helbururako bideratutako gastuak per capita (eurotan)



Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika 2023-12-31n

Lurralde historikoen arabera alderatzen baditugu datuak, fundazioen sektoreak Araban baino presentzia handiagoa dauka Bizkaian eta Gipuzkoan. Bizkaia eta Gipuzkoa alderatzen baditugu, datuak oso antzekoak dira. Hala ere, Gipuzkoan helburuetara bideratutako gastua apur bat handiagoa da, eta, aldiz, ondare garbia zertxobait txikiagoa. Gastu hori honela banakatu da lurraldeen arabera:

34. grafikoa. Fundazioaren helburuetara bideratutako gastua, lurralde historikoen arabera



Araban, kalkulu-oinarriaren % 97 helburuetara bideratzen da (guztira, 96 milioi euro). Helburuetara bideratutako gastua 10 milioi handitu da 2023an. Gastu horren % 37 hezkuntzako helburuetara bideratzen da, eta % 21, teknologia, ikerketa eta berrikuntzara. Bestalde, gizarte-zerbitzuetako eta egoitzetako gastua txikiagoa da gainerako lurralde historikoetan baino.



Bizkaian, kalkulu-oinarriaren % 99 helburuetara bideratzen da (guztira, 636 milioi euro). Gastu horren % 45 teknologia, ikerketa eta berrikuntzara bideratzen da (gainerako lurralde historikoetan baino nabarmen gehiago) eta % 27 gizarte-zerbitzuetara. Hezkuntzako gastua ezdeusa da gainerako lurralde historikoenaren aldean.



Gipuzkoan, kalkulu-oinarriaren % 96 bideratzen da helburuetara (guztira, 409 milioi euro). Gastu horren % 28 teknologia, ikerketa eta berrikuntzara bideratzen da eta % 21 hezkuntzara. Gipuzkoan, nabarmentzekoa da egoitzek helburuetara bideratutako gastuen % 14 osatzen dutela, hau da, gainerako lurralde historikoetan baino ia hiru aldiz gehiago. Aldiz, museo eta ondare kulturalaren gaineko gastua proportzionalki txikiagoa da.

2.3 ONDARE-EGOERA, FINANTZA-EGOERA ETA GASTU ERANTSIA

Fundazioen gastuaren helmuga azaldu ondoren, jarraian 2023ko ekitaldirako balantzearen magnitudeak banakatzen dira, jarduera-arloaren arabera sailkatuta, fundazioen gastu erantsiarekin batera:

6. taula. Magnitude ekonomikoak, jarduera-arloaren arabera (eurotan)

	MAGNITUDE EKONOMIKOA (eurotan)		
Jarduera-arloa	**Aktiboak**	**Ondare garbia**	**Gastu erantsia**
Hezkuntza	212.097.859	166.026.847	147.309.630
Museoak eta ondare kulturala	253.676.540	196.957.279	68.193.393
Garapenerako lankidetza	81.491.911	60.961.170	31.210.698
Egoitzak	188.823.972	163.661.851	143.569.361
Gizarte-zerbitzuak	450.668.925	388.131.546	214.045.428
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza	962.179.402	457.844.647	400.907.242
Bestelakoak	469.347.957	389.190.975	209.306.430
GUZTIRA	**2.618.286.566**	**1.822.774.315**	**1.214.542.182**

Metodologia-oharrean azaltzen den bezala, gastu erantsia da emaitzen kontuko gastu-partida nagusien batura, eta, aldiz, fundazioaren helburuetara bideratutako gastuak dira aipatu helburuak betetzen lagundu duten gastuak eta inbertsioak.

Fundazioen ondare- eta finantza-egoera ratioen bidez neur daiteke. Horrenbestez, zorpetzearen ratioak ondare-egoera islatzen du, hau da, pasiboa zati ondare garbia eginda ateratzen den emaitza. Ratio hori zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta zorpetze gutxiago dauka fundazioak eta hobea da bere ondarearen egoera. Batez besteko zorpetze-ratioa % 44koa da, eta hori oinarrizko lau puntu handitu da 2022ko % 40aren aldean. Ondorioz, fundazioen zorpetzea mugatua da, eta murriztu egin da 2023ko ekitaldian.

Bestalde, finantza-egoera maniobra-funtsaren bidez aztertzen da: aktibo korrontea pasibo korrontearekin zatituta. Maniobra-funts txikiak baliteke likidezia-faltaren adierazgarri izatea; aldiz, multiplo altuak likidezia saneatua dela adierazten du. Maniobra-funtsa baliteke likidazio-tentsioen adierazgarri izatea, 1etik beherakoa bada. Fundazioen maniobra-funtsaren batez besteko multiploa 2,5ekoa da. Ondorioz, sektorearen likidezia-egoera saneatua da.

Jarraian, ratio horiek 2023ko ekitaldirako jarduera-arloaren arabera banakatuta ageri dira:

35. grafikoa. Ondarearen egoera: zorpetze-ratioa eta maniobra-funtsa



Zorpetze-ratioaren jardueraren araberako banakapenak erakusten du egoitzen (% 15) eta gizarte-zerbitzuen (% 16) eremuetako fundazioak direla gutxien zorpetutakoak, eta teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-fundazioak direla zorpetze-maila handiena dutenak. Gainera, zorpetze-ratioak oinarrizko 15 puntu egin du gora azken eremu horretan, baina kontuan hartu behar da zor horren zati handi bat dela dirulaguntza itzulgarriak kontabilizatzeko moduaren emaitza. Laburbilduz, fundazioen sektorearen ondare-egoera saneatua da, eta batez besteko zorpetze-ratioa,% 44koa.

Maniobra-funtsaren ratioa batetik gorakoa bada, ulertzen da epe laburrean ez dela egongo likidezia-arazorik. Banakapena jarduera-arloen arabera aztertuta, museoen eta ondare kulturalaren fundazioak dira epe laburrean finantza-egoera kaudimendunagoa dutenak (3,9), nahiz eta 2023an 2022ko 5,2ko ratiotik murriztu den. Aldiz, maniobra-funts baxuena duen eremua teknologia, ikerketa eta berrikuntzako fundazioena da oraindik (2,1). Edonola ere, arlo guztiek dute bitik gorako maniobra-funtsa; hau da, fundazioen sektorearen finantza-egoera epe laburrera kaudimenduna da.

2.4 BANKU-FUNDAZIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearen 65. artikuluaren arabera, banku-fundazioak dira kreditu-erakunde batean zuzenean edo zeharka erakundeko boto-eskubideen eta kapitalaren gutxienez % 10eko partaidetza dutenak edo beren administrazio-organoko kideren bat izendatu edo ordezteko aukera dutenak. Banku-fundazioek helburu soziala izan behar dute, eta beren jarduera nagusia gizarte-ekintza garatu eta artatzea eta kreditu-erakunde batean beren partaidetza egokiro kudeatzea izan behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2014an hiru banku-fundazio sortu ziren, bana lurralde historiko bakoitzean. Hiru banku-fundazioek Kutxabank SA izeneko kreditu-erakundearen akzio guztiak dituzte. Aurrezki-kutxak banku-fundazio bihurtzean sortu zen aipatu erakundea. Hona hemen horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa, bere izenarekin batera:

%57

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria - Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa (aurrerantzean, BBK Banku Fundazioa).

%32

- Bancaria Kutxa - Kutxa Banku Fundazioa (aurrerantzean, Kutxa Banku Fundazioa).

%11

- Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioa (aurrerantzean, Vital Banku Fundazioa).

EAEko hiru banku-fundazioez gain, Estatuan beste hiru banku-fundazio daude, kreditu-erakundean % 10etik gorako partaidetza dutenak: La Caixa Banku Fundazioa, Ibercaja Banku Fundazioa eta Unicaja Banku Fundazioa.

Banku-fundazioak EAEko fundazioen sektoreko zati garrantzitsua dira. Jarraian, banku-fundazioen magnitude nagusiak banakatzen dira, EAEko gainerako fundazioen datuekin batera, 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako. Magnitude nagusiak lau izango dira: aktiboak, ondare garbia, diru-sarrerak eta fundazioaren helburuetara bideratutako gastuak.

7. taula. Banku-fundazioen eta fundazioen sektore osoaren magnitude ekonomikoak, 2023an eta 2022an

2023	Banku-fundazioak	Gainerako fundazioak
Aktiboa, guztira	6.062.414.179	2.618.286.567
Ondare garbia	6.040.671.099	1.822.774.315
Diru-sarrerak	307.770.674	1.252.852.925
Helburuetara bideratutako gastua	56.350.000	1.141.625.130

2022	Banku-fundazioak	Gainerako fundazioak
Aktiboa, guztira	5.801.433.711	2.419.629.794
Ondare garbia	5.780.793.050	1.724.270.103
Diru-sarrerak	332.356.676	1.115.144.265
Helburuetara bideratutako gastua	61.836.000	1.040.433.723

Hiru banku-fundazioen aktiboen kontabilitate-balioa, 2023an, 6.062 milioi eurokoa da. Hau da, aztertutako fundazioen sektoreko kontabilitate-balioaren % 70. Banku-fundazioek ondare esanguratsua dute, neurri handi batean Kutxabank SA kreditu-erakundean duten partaidetzaz osatua. 2023ko ekitaldian, handitu egin dira banku-fundazioen aktiboa eta ondare garbia. Bestalde, diru-sarrerak pixka bat murriztu dira aparteko dibidendurik ez dagoelako, eta gizarte-ekintzara bideratutako gastua ere murriztu egin da, 62 milioi eurotik 56 milioi eurora.

36. grafikoa. Aktiboaren kontabilitate-balioa (mila eurotan



2014an banku-fundazioak sortu zirenetik, Kutxabank SAk banku-fundazioei egotzi ahal zaizkien emaitza finkatuak lortu ditu: 2.838 milioi euro. Zenbateko hori 1.434 milioi euroko dibidenduetan banatu da. Hurrengo grafikoan ikusten den bezala, Kutxabank SAren emaitza apaldu egin da 2020ko eta 2021eko ekitaldietan, baina 2022an pandemia aurreko zenbatekoak berreskuratu dira, eta bankuaren historiako emaitzarik onenak lortu dira 2023an.

37. grafikoa. Emaitzaren bilakaera eta banatutako dibidendua 2014-2023 aldian



(*) *Kutxabank SAren eta haren mendeko sozietateen emaitza finkatua, hiru banku-fundazioei egotzi ahal zaiena.*

Kutxabank SAren emaitzaren banaketari dagokionez, jarraian *pay-out* delakoa islatzen da; hau da, banku-fundazioek, akziodunak diren aldetik, dibidendu gisa banatzea erabaki duten emaitzaren ehunekoa da ratio hori. Banku-fundazioen ratio hori emaitzaren % 60an egonkortu da azken lau ekitaldietan, eta gainerako % 40a bankua kapitalizatzeko erabili da. *Pay-out* hori estatuko banku-sektorearen batezbestekoaren gainetik dago.

38. grafikoa. Pay-out delakoaren bilakaera 2014-2023 aldian (%)



Gainera, esan beharra dago banku-fundazioek diru-sarrera pribatuen beste iturri batzuk dituztela, grafiko honetan jaso ez direnak. Hain zuzen ere, Kutxabank SAtik kanpoko iturrietatik datozen hiru banku-fundazioen diru-sarrera finantzarioak, 2023an, 29 milioi eurokoak izan dira (47 milioi eurokoak 2022an), hau da, diru-sarreren % 10. Hortaz, banku-fundazioen inbertsioen dibertsifikazioa mugatua da.

Bestalde, banku-fundazioen finantzaketa publikoa mugatua da. Hori horrela, 2023ko ekitaldian banku-fundazioek 964 mila euroko ustiapeneko dirulaguntzak eskuratu dituzte.

Lehen hamarkadan, banku-fundazioek guztira 583 milioi euro bideratu dituzte gizarte-ekintzara. Hiru banku-fundazioen gizarte-ekintza 47 eta 65 milioi euro artekoa izan da urtean. Hurrengo grafikoan, gizarte-ekintzak banku-fundazioen bizitzaren lehen hamar urteetan izan duen bilakaera ageri da.

39. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua (eurotan)



Banku-fundazioen gizarte-ekintza askotariko jarduera-arloetara bideratzen da. 2023an, banku-fundazioek 56 milioi euro bideratu zituzten fundazio-helburuetara (62 milioi euro 2022an), hala nola kulturara, inklusiora, hezkuntzara eta ingurumenera; hori horrela, gizarte-ekintza % 9 murriztu zen 2022koarekin alderatuta. Banku-fundazio bakoitzak egindako jardueren sailkapen propioa dauka eta, jarraian, diru-sarrera erantsien helmugaren sailkapen harmonizatua banakatu da, 2023ko jardueren arabera.

40. grafikoa. Gizarte-ekintzaren helmuga, eremuaren arabera (eurotan eta %-tan)



Gizarte-ekintzako 56 milioi euroetatik, baliabide gehien kulturara eta kirolera bideratzen da (18 milioi euro), gero inklusiora, berdintasunera eta gizarte-partaidetzara (12 milioi euro). Bi jarduera horiek gizarte-ekintzaren erdia baino gehiago batzen dute.

Bestalde, hezkuntza eta talentuak nahiz ingurumen, garapen jasangarri eta ondareak 10na milioi batzen dituzte.

Deskribatutako jarduerak zuzenean egin dituzte banku-fundazioek edo zeharka beren taldeko beste fundazio batzuek (esaterako, Kutxa Fundazioa edo Vital Fundazioa).

2014-2023 aldian, banku-fundazioek Kutxabank SA enpresaren dibidenduak jaso dituzte, 1.406 milioi eurotan. Dibidenduen araberako diru-sarrerak nabarmen handitu dira banku-fundazioak sortu zirenez geroztik. Bestalde, gizarte-ekintzara bideratutako gastua egonkorra izan da banku-fundazioen lehen hamar urteetan: 60 milioi euro inguru ekitaldi bakoitzean. Jarraian, banku-fundazioek jasotako dibidenduak eta gizarte-ekintza alderatu dira (azken hamarkadan):

41. grafikoa. Jasotako dibidenduak eta gizarte-ekintza (milioika eurotan)



Banku-fundazioek gizarte-ekintzara bideratu duten dibidenduaren ehunekoa murriztu egin da azken ekitaldietan, 2020koan salbu. Murrizketa hori gertatu da, hain zuzen ere, Kutxabank SA enpresaren emaitzak handitu egin direlako, gizarte-ekintzako gastuak bere horretan jarraitu duelako eta erreserba-funtsa zuzkitu behar izan delako. Jarraian, Kutxabank SA enpresatik jasotako dibidendutik banku-fundazioek gizarte-ekintzara zer ehuneko bideratu duten zehazten da:

42. grafikoa. Gizarte-ekintzara bideratutako dibidenduaren %-a (% 0 - % 100)



2023an, banku-fundazioek Kutxabanken aldetik jasotako dibidenduen % 20 bideratu dute gizarte-ekintzara, eta ehuneko horren joera beheranzkoa da, 2020ko ekitaldian izan ezik. Beheranzko joera hori gizarte-ekintzaren emaitzaren igoeran eta egonkortasunean oinarritzen da, eta egonkortu egin da 2023ko ekitaldian.

Kutxabank SAk eta haren mendeko sozietateek 2014-2023 aldian 2.838 milioi euroko emaitza izan dute. Aldi horretan, banku-fundazioen patronatuek Kutxabank SA enpresaren administrazio-kontseiluaren proposamena berrestea erabaki zuten, emaitza aplikatzeko: 1.406 milioi euro banatu zitzaizkien banku-fundazioei, eta Kutxabank SAk 1.432 milioi euro gorde zituen bere kapitalizazioa indartzeko. Bestalde, banatutako 1.406 milioi euroetatik 584 bideratu ziren gizarte-ekintzara, eta 848 milioi bideratu ziren banku-fundazioen kapitalizazioa indartzera. Banku-fundazioen kapitala indartzeko erabilitakoaren % 30, zehazki, 256 milioi euroko erreserba-funtsari dagokio, eta legez nahitaezkoa da.

43. grafikoa. Kutxabank SA taldearen emaitzaren helmuga 2014-2023 aldian (milioi eurotan eta %-tan)



Kreditu-erakunde batean % 50etik gorako partaidetza duten banku-fundazioek Espainiako Bankuak eskatzen duen erreserba-funtsa zuzkitu behar dute. Funts hori zuzkituta, entitate partaidetuaren kudeaketa sanoa eta zuhurra bermatu nahi da. BBK banku-fundazioak 2015eko ekitaldian ekin zion erreserba-funtsa eratzeari, nahitaez. Funts hori guztiz zuzkituta dago 2022tik, eta 2023ko abenduaren 31n erregistratutako zenbatekoa 256 milioi eurokoa da (231 milioi euro 2022an). Kutxa Banku Fundazioak eta Vital Banku Fundazioak, berriz, ez dute erreserba-funts hori zuzkitzeko legezko betebeharrik, eta beren urteko kontuetan ez da ageri zuzkidurarik egiten ari direnik.

2.5 EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIOAK

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio izateko, EAEko sektore publikoak izendatu behar ditu fundazioko gobernu-organoko kide gehienak, eta, horrez gain, egoera hauetakoren bat bete behar da:

- Fundazioaren balioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago EAEko sektore publikoak jartzen duen zuzkidura izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak jartzen dituen ondasun eta eskubideak fundazio-ondarearen balioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago izatea, modu iraunkorrean.

Atal honen xedea sektore publikoak izendatutako patronatuen osaera aztertzea da, zuzkiduraren edo fundazioaren ondarearen jatorriaren eremuan sartu gabe. Ondorioz, txosten honetan ez da EAEko sektore publikoko fundazioen inbentario zehatz bat egin nahi.

Patronatuen osaera sektore publikoa izendatzeko gaitasunaren arabera aztertzeko, 379 fundazio hartu dira kontuan. 2023an urteko kontuak aurkeztu dituzten fundazioei dagokie fundazioen kopuru hori. Jarraian, 379 fundazioak banakatu dira, sektore publikoak izendatutako patronatuak osatzen dituzten pertsonen ehunekoaren arabera.

8. taula. Fundazioen kopurua, sektore publikoak izendatutako patronatukideen ehunekoaren arabera

Sektore publikoak izendatutako patronatukideen %-a	Fundazioen kopurua
% 0	259
% 1 - % 49	57
≥% 50	63
Guztizko orokorra	**379**

Lau fundaziotik batek inguru dauka gutxienez patronatukide bat sektore publikoak izendatua, hau da, 2023an urteko kontuak aurkeztu dituzten 379 fundazioetatik 120k.

Gainera, kontuan hartuta fundazio batzuetan ente publiko desberdinek izendatutako patronatukideak daudela, datuak aztertuta pentsatzekoa da administrazio publikoek 219 izendapen egin dituztela fundazio horietan. Jarraian, fundazio horietan patronatukideren bat izendatu duten administrazio publikoak banakatzen dira.

44. grafikoa. Zenbat fundaziotan duten administrazio publikoek patronatukideak izendatzeko gaitasuna



Aurreko grafikoan ikusten den bezala, tokiko sektore publikoak (udalek eta eskualdeko enteek osatua) 82 fundaziotan izendatu ditzake patronatukideak. EAEko sektore publikoak 49 fundaziotan dauka patronatukideak izendatzeko gaitasuna, eta foru-sektore publikoak, bestalde, 80 fundaziotan. Lurralde historiko bakoitzeko aldundiek duten pisu erlatiboari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 36 fundaziotan dauzka patronatukideak izendatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak 24 fundaziotan eta Arabako Foru Aldundiak 20 fundaziotan.

Sektore publikoak izendatutako patronatukideren bat duten 120 fundazioak 2 taldetan sailkatzen dira: sektore publikoak patronatukideen erdiak edo gehiago izendatzeko gaitasuna badu, talde batean sartzen da; halako gaitasunik ez badu, beste taldean.

45. grafikoa. Zenbat fundaziotan duten administrazio publikoek patronatukideak izendatzeko gaitasuna: fundazio kopurua banakatuta.



Administrazio publikoek 63 fundaziotan izendatzen dituzte patronatukideen erdiak edo gehiago. 63 fundazio horietatik 34tan, administrazio bakarrak izendatzen du osorik patronatua. Fundazio horietatik 29tan, berriz, bi administrazio publikok edo gehiagok baliatzen dute gaitasun hori. Hau da, sektore publiko erakundeen artean EAEko sektore publikoko 29 fundaziotan lankidetza dago fundazioak kudeatzeko.

46. grafikoa. Administrazio publiko bakarrak osorik izendatutako patronatua duten fundazioak



Bestalde, administrazio publikoek gaitasuna dute patronatukideren bat izendatzeko, patronatuko kontrola izan gabe, 57 fundaziotan.

2023ko urteko kontuak aurkeztu dituzten EAEko fundazioek beren helburuetara bideratutako gastua 1.198 milioi eurokoa izan zen 2023an. Sektore publikoak izendatutako patronatuaren osaerari dagokionez, fundazioen kopurua eta helburuetara bideratutako gastua honako hauek dira:

47. grafikoa. Fundazioen gastua, sektore publikoak izendatutako kargudunen ehunekoaren arabera (eurotan eta %-tan).



48. grafikoa. Fundazioen kopurua, sektore publikoak izendatutako kargudunen ehunekoaren arabera (eurotan eta %-tan).



Nabarmentzekoa da sektore publikoak fundazioetan izendatutako patronatukideak kideen erdiak baino gutxiago direnean, fundazio horietan fundazio-helburuetara bideratutako batez besteko gastua gainerakoena baino handiagoa dela. Zehazki, fundazioen % 15 dira (57 fundazio) eta gastu erantsiaren % 40 (484 milioi euro). Aldiz, fundazioen % 68ren patronatuan ez dago sektore publikoak izendatutako patronatukiderik, baina fundazio horiek helburuetara bideratu duten gastua guztizkoaren % 42koa da.

Aurreko grafikoetan ikusten den bezala, patronatukide gehienak pribatuak dituzten fundazioek gastuaren % 82 hartzen dute. Bestalde, kide gehienak administrazio publikoek izendatuta dituzten fundazioetan helburuetara bideratutako gastuaren % 18ra iristen da.

Jarraian, gastu horren bilakaera ageri da, sektore publikoak izendatutako patronatukideen ehunekoaren arabera banakatuta.

49. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, administrazio publikoek izendatutako kargudunen ehunekoaren arabera (eurotan).



Ondorioz, fundazioen patronatua sektore pribatuak izendatzen duenean, fundazio horiek egiten dute sektorearen gastu gehiena. Sektorearen helburuetara bideratutako gastuak handitu egin dira patronatuaren osaera edozein dela ere, baina gastu hori gehiago handitu da administrazio publikoek patronatuaren gehiengoa izendatzen duten fundazioetan.

2.6 FUNDAZIOEN SEKTOREAK EAE-KO BALIO ERANTSI GORDINARI ETA BARNE-PRODUKTU GORDINARI EGITEN DIEN EKARPENA

EAEko fundazioen jarduera-arloen araberako kategorizazioa erabakitakoan, definitutako metodologiaren arabera, EAEko Fundazioen Babesletzak berariaz aztertu du fundazioek interes-taldeen gainean sortzen duten inpaktua, adibidez langileen eta boluntarioen gainean, administrazio publikoetan, eta onuradunen, nahiz, oro har, gizartearen gainean. Inpaktu horren adibideak dira, besteak beste, EAEko fundazioek fundazio-museoa bisitatzen duen pertsonari sortzen dioten balioa, desgaitasunen bat duten pertsonei lan-aukera emanez sortutako balioa, familiei liberatutako zaintza-lan orduen aurrezkia, administrazio publikoek gizarte-zerbitzuak betetzean sortutako aurrezkia eta abar.

Helburu horrekin, eta erregistro ofizialetan eskuragarri dauden datuen eta informazioaren arabera, sarreran azaldu den bezala, jarraian zehazten diren zenbatekoak —eta EAEko fundazioetan inplikatutako pertsonei buruzkoak (ordainpeko langileak, boluntarioak eta gobernu-organoak osatzen dituzten langileak), hots, hirugarren kapituluan aztertzen direnak— berez dira fundazioen sektoreak egiten duen ekarpen ekonomikoaren erakusle. Hartara, ekitaldian ikusten den bezala, txosten honetan aztertutako EAEko fundazioek 2023an 707 milioi euro inguruko balio erantsia sortzen lagundu zuten (2022an 635 milioi euro inguru), kontuan hartuta zuzeneko efektuak, hots, emaitzen kontutik ekoizpenean sortutako inpaktuak, honako hauen batura gisa kalkulatutakoak:

- lan-kostuak
- amortizazioak
- eta ekoizpenaren gaineko beste zerga garbi batzuk.

Zenbateko hori, 2023an, EAEko barne-produktu gordinaren **% 0,84** da (% 0,81 2022an), eta handiagoa izango litzateke, zeharkako efektuak, efektu traktorea eta inpaktu induzituak kontuan hartuz gero. Ez da kontuan hartu fundazioek mobilizatutako balioaren efektua, batez ere, hornitzaileen bidezkoa, ez eta ekonomiaren beste sektore batzuetan egindako ekarpena ere, bezeroen gaineko efektuen edo kontsumo-igoeraren edo errenta-efektuaren ondorioz.

9. taula. EAEko fundazioen sektorearen balio erantsi gordina, kideen arabera. 2020-2023ko errentak (eurotan)

	2020	2021	2022	2023
Soldatapekoen ordainsariak	502.355.425	546.937.884	572.536.470	639.864.853
Ekoizpenaren gaineko beste zerga garbi batzuk	1.108.970	803.886	854.522	791.285
Kapital finkoaren kontsumoa (amortizazioak)	56.011.622	60.220.351	61.298.085	66.334.571
BALIO ERANTSI GORDINA EAEko fundazioen sektorea	**559.476.017**	**607.962.121**	**634.689.077**	**706.990.709**
EAEko BALIO ERANTSI GORDINA*	65.969.952.000	70.807.648.000	78.341.856.000	83.920.969.000
%	**% 0,85**	**% 0,86**	**% 0,81**	**% 0,84**

**** Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak. 2022ko oinarria.***

Hori horrela, egindako hurbilketaren arabera, EAEko fundazioak, EAEko barne-produktu gordinari egiten dioten ekarpenari dagokionez, beste sektore batzuen mailan daude; hor dira, esaterako: nekazaritza (% 0,9), egurra, papera eta arte grafikoak (% 1), eta materialaren eta ekipo elektrikoen fabrikazioa (% 0,8); aldiz, beste pertsona juridiko batzuen azpitik daude, hala nola kooperatiben (% 3,9) azpitik. *Iturria: Kooperatiben balio erantsi gordina: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Euskal ekonomia sozialaren estatistika.*

Jarraian, fundazioen sektoreak 2023an balio erantsi gordina sortzeko izan duen gaitasuna ageri da, lurralde historikoen arabera:

10. taula. Fundazioen sektorearen balio erantsi gordina, kideen eta lurralde historikoen arabera. 2023ko errentak (eurotan)

	2023		
	Araba	**Bizkaia**	**Gipuzkoa**
Soldatapekoen ordainsariak	59.677.318	331.079.805	249.107.730
Ekoizpenaren gaineko beste zerga garbi batzuk	82.724	387.964	320.597
Kapital finkoaren kontsumoa (amortizazioak)	7.926.219	29.805.169	28.603.183
BALIO ERANTSI GORDINA EAEko fundazioen sektorea	67.686.261	361.272.938	278.031.510
EAEko BALIO ERANTSI GORDINA*	13.436.493.000	42.405.682.000	28.078.794.000
%	% 0,50	% 0,85	% 0,99

**** Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak. 2022ko oinarria.***

EAEko fundazioen sektoreak sortutako diru-sarreren bolumen guztitik (2023an 1.560 milioi euro izan ziren), balio erantsi gordina haren % 44 izan zen, 707 milioi eurora iritsita.

Leontief eredua aplikatuta, fundazioen ekarpena balioetsita ondorioztatzen da EAEko fundazioek 2023an 896 milioi eurotik gorako balio erantsia sortzen lagundu zutela, zuzeneko eta zeharkako efektuak kontuan hartuta. Zifra hori EAEko BPGd-aren % **1,08** da urte horretarako, eta 2022ko ekitaldian 1,04.

2.7 EAE-KO FUNDAZIOEN SEKTOREAK SORTUTAKO BALIO SOZIALAREN MONETIZAZIOA

Gaur egungo gizarteak zera eskatzen du: era horretako erakundeek inpaktu-neurketak egiten dituztenean gainditu ditzatela dimentsio estatistiko klasikoak, hala nola enplegua, diru-sarrerak edo balio erantsia. Horretarako, bestelako eredu bat eskaini beharko diegu entitate horiei, eredu horren bidez aukera izan dezaten egoera-orri finantzarioek emandako informaziotik harago jotzeko, jakitun baikara etekinean eta ondare-aldakuntzan oinarritutako ekonomia- eta finantza-kontabilitatea ez dela nahikoa fundazioek gizarteari ematen dioten balioa ulertzeko. Izan ere, kontabilitate tradizionalean, ez da dokumentatzen balio soziala —hots, ordainketarik edo preziorik («ez-merkatu»ko baliorik) ez duten edo doakoak diren balio-transferentziak—, eta balio emozionala ere ez da aintzat hartzen —funtsezko balioa fundazioetan—, eta ondorioz, fundazioen balioa gutxietsita eta ikustezin geratzen da.

Oso esperientzia aberasgarriak daude fundazioen sektorean. Garrantzi bereziko mugarri bat izan da 2024an; hala, Fundazioen Euskal Konfederazioak (FUNKO) sustatutako jarduera berritzaile batean parte hartu du Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak, eta, modu horretara, berretsita geratu da zer-nolako konpromisoa duen EAEko fundazioen sektoreak gardentasunarekin eta kontu-ematearekin. Bestalde, UPV/EHUko unibertsitate-hedapenerako ikastaro baten bidez, EAEko fundazioek prestakuntza-prozesu kolektibo batean parte hartu dute jasangarritasunari buruzko txostenak egiten eta fundazioentzat egokia den txosten-eredua diseinatzen ikasteko, kontabilitate sozialaren ildotik (*Social and Environmental Accounting*), Freeman, Retolaza eta San-Josek garatutako eredu poliedrikoan (2020) oinarrituta.

Kapitulu honetan, EAEko fundazioen sektoreak sortutako balio soziala monetizatzen saiatu gara, merkatu-balioaren kalkulua bakarrik ardatz hartuta.

Merkatuko balioari dagokionez, kontuan hartu behar da entitate batek sortutako balio erantsia, *a posteriori* askotariko interes-taldeen artean banatuko dena. Proposatutako prozesu metodologikoak hobesten du emaitzen kontuko datuak Enpresen Kontabilitate eta Administrazioko Espainiako Elkarteak (AECA) proposatutako eredura eramatea, balio erantsiaren egoera erreferentzia gisa hartuta, fundazioaren errendimenduaren funtsezko adierazlea baita. Eredu horretan, gastuak balio positibotzat hartzen dira, interes-taldeentzat balioa sortzen dutelako; hor dira, besteak beste,

langileak (lanaren faktorea), finantza-entitateak (kapitalaren faktorea), administrazio publikoak eta antolakundean atxikitako balioa. Horrenbestez, antolakunde baten soberakina fundazioan parte hartzen dutenek egindako ahalegin kolektiboaren emaitza da.

Jarraian, bost interes-talde handietan banatutako —aplikatutako— balio erantsia ageri da: langileak, administrazio publikoa, komunitate eta gizarteari banatutakoa (entregatutako laguntza monetarioak), besteren kapitala (banku-finantzatzaileak eta antzekoak), eta antolakundeak berak atxikitako balioa:

50. grafikoa. EAEko fundazioek sortutako balio erantsi gordinaren banaketa edo aplikazioa (eurotan eta %-tan)



Fundazioen sektoreak sortutako aberastasuna interes-taldeen artean banatzeari dagokionez (balio erantsiaren arabera neurtuta), aurreko ekitaldiko banaketarekin alderatuta, ikusten da langileei banatutakoa gehiago izan zela 2023an (ehuneko 3 puntu handitu zen), diru-kutxa publikoetara itzulitakoa gehiago izan zela (ehuneko 2 puntu) eta komunitateari dirulaguntza gehiago eman zitzaizkiola (ehuneko puntu 1); fundazioan erreserba gisa atxikitako banatu gabeko soberakinak, ordea, txikiagoak izan ziren (ehuneko 6 puntu gutxiago).

Bestalde, kontuan hartu behar dugu, emaitzen kontutik lortutako datuetan oinarrituta, negozio-zifraren zenbateko garbitik ere eskuratzen ditugula bezeroei sortutako balio sozialaren adierazleak; hain zuzen ere, 552 milioi eurokoa izan da (484 milioi euro 2022ko ekitaldian), eta, hala, EAEko fundazioek sortutako merkatuko balio soziala 1.682 milioi eurokoa izan da guztira (1.582 milioi euro 2022ko ekitaldian).

Nahiz eta ez den aztertu, ezin da gutxietsi mobilizatutako balioaren bidez sortutako efektu traktorea hornitzaileen kate osoan egindako erosketengatik (komertzialak edo inbertsiokoak) eta azpikontratazioengatik (enplegua sortzen duen iturria); halakoak 417 milioi eurokoak izan dira guztira (386 milioi euro 2022ko ekitaldian). Haien bidez balio erantsia sortzen da, eta banatzen da, zeharka, interes-taldeetan (hornitzaileek ordaindutako soldatak, zergak, kapital-dibidenduak eta abar), eta ondorioz, EAEko fundazioen sektoreak sortutako merkatuko balio soziala 2.099 milioi euroko zenbatekora handitzen da (1.968 milioi euro 2022an).

51. grafikoa. EAEko fundazioek sortutako merkatuko balio soziala (eurotan)



Sortutako balio sozial absolutuaz gain, interesgarria da EAEko fundazioen sektorearen merkatu-jardueraren itzulkin eta errentagarritasun soziala aztertzea, analisi-ratio desberdinen bidez. Inbertsio publikoaren itzulkinaren kalkuluari dagokionez (625 milioi euro dirulaguntzetan eta bestelako diru-sarrera publikoetan 2023an, eta 588 milioi euro 2022an), fundazioen sektorera bideratutako gastu publikoaren euro bakoitzeko 2,7 euro itzuli zaizkie interes-taldeei merkatuko eragiketen bidez; hau da, jasotako finantzaketa publikoa halako hiru da sortzen den balioa.

52. grafikoa. EAEko fundazioen sektorearen merkatuko itzulkin ekonomikoa, jasotako finantzaketa publikoarekiko (eurotan)



Ondoren, EAEko fundazioen sektoreak sortutako balio soziala ikusten da, banakatuta, alde batetik, txosten honek hurbilketa egiteko erabili dituen lau balio-ekosistematan; entitateek sortutako eta interes-taldeei merkatuko transakzioen bidez helarazitako balioarekin bat dator hori, hau da, kontabilitatean erregistratutako eragiketak dira, prezio-kontraprestazioa dutelako. Honako hauei dagozkie:

- 2023. urtean sortutako soberakina (onura ekonomikoa).
- Balio-sorkuntzako bigarren ekosistemak, lehena osatzen duenak, administraziora zerga bidez itzultzen diren kaxa-fluxuak islatzen ditu (errentaren gaineko zergen, gizarte-segurantzarako kotizazioen eta tributuen bidezko itzulkinak).
- Hirugarrenak bere jarduera ekonomikoarekin sozietate osoarentzat sortzen duen balioa erakusten du, merkatuko zuzeneko eragiketen bidez (funtsean, ordaindutako soldatak eta lansariak, komunitateari emandako dirulaguntzak, fundazioan atxikitako amortizazio-gastuak eta banku-entitateei ordaindutako finantza-gastuak). Ez da kalkulatu zeharka sortutako merkatu-balioa.
- Azkenik, merkatuko balio sozialak aurreko ekosistemak biltzen ditu, eta erabiltzaileei nahiz bezeroei ondasun eta zerbitzuen salmentaren bidez transferitutako balioa. Onuradunei prezio baten truke emandako produktu edo zerbitzuari dagokio. Produktu edo zerbitzu horrek bezeroarentzat duen gutxieneko balioa adierazten du prezioak. Antolakundeak merkatuan, prezio-sistema baten barruan, jarduten duenean, bezeroek jasotako balioa fakturazioarekin parekatuko da. Are garrantzitsuagoa da bezeroei transferitutako balio hori ikusaraztea entitateak

merkatuan alternatiba gutxiko segmentuan jarduten duenean (bai eremu geografikoari begira, bai zerbitzuei erantzutean, bai prezioan).

53. grafikoa. Balioa sortzen duten ekosistemak (eurotan)



Horrenbestez, ez da aztergai hartu balio-ekosistema handi bat, kontabilitate sozialean jasotzen dena eta ikusgai jartzen duena merkatukoak ez diren transferentzien bidez interes-taldeetan sortutako balio soziala (prestakuntza, informazioa, eta aholkularitza, lanpostuko hobekuntzak, kostuen murrizketak, zainketak, denboraren liberazioa eta abar); izan ere, transferentzia horiek ez dute prezio-kontraprestaziorik, edo argi eta garbi diruz lagundutako prezioa duten eragiketak dira. Azterketatik kanpo gelditu dira, halaber, «balio emozionala» duten transferentziak (langileen ahalduntzea, estimua, taldekide izatearen sentimendua, profesionaltasuna, partaidetza eta abar).

Kapitulu hau amaitu baino lehen, interesgarria da diru-sarrera publikoen efektu biderkatzailea azpimarratzea. Lehenago ikusi dugunez, administrazio publikoetatik datozen dirulaguntzak eta bestelako diru-sarrerak 2023ko ekitaldiko diru-sarrera guztien % 42 dira (aztertutako fundazio guztiei dagokienez). Diru-sarrera horiek gorabehera, fundazioak gai dira askotariko iturrien diru-sarrerak lortzeko, hala nola ondaretik datozen diru-sarrerak (finantza-sarrerak), kuoten, dohaintzen, kolaborazioen eta antzekoen ondoriozko diru-sarrerak, zerbitzu-prestazioen eta salmenten ondoriozkoak eta merkataritzako beste diru-sarrera batzuk.

Ondoren ageri den irudian ikusten den bezala, EAEko fundazioen sektorea gai da beste 1,5 euro osagarri mobilizatzeko entregatutako dirulaguntza publikoko euro bakoitzeko.

54. grafikoa. Fundazioen sektoreko diru-sarreren biderkatzailea



3

PERTSONAK



Pertsonak

Kapitulu honetan, fundazioak osatzen dituzten pertsonei buruzko datuak aztertzen dira. Pertsona horiek balio handia dute fundazioen barruan, eta funtsezkoak dira fundazioek behar bezalako funtzionamendua izan dezaten eta interes orokorraren mesederako ekintzak abian jar daitezen.

Kapituluan, fundazio-jardueran esku hartzen duten hiru pertsona-taldeen ezaugarri nagusiak deskribatzen dira: langileak, patronatua eta boluntarioak. Sektoreak enpleguan zer inpaktu duen aztertuko dugu, eta datuak bereizi egingo ditugu sexuaren, garatutako jardueraren eta kudeatutako gastu-bolumenaren arabera. Fundazioen jarduera esku hartzen duten pertsona-tipologietan emakumeen eta gizonen zer ehuneko dagoen aztertuko dugu. Halaber, gobernu-organoetan ordezkaritza orekatua den edo, bestalde, maskulinizatua edo feminizatua den aztertuko dugu.

Laburbilduz, emakumeen eta gizonen berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean jasotzen da, honela:

- 28.g) artikulua: Genero-berdintasuna, jarduteko eta funtzionatzeko printzipio gisa.
- Laugarren xedapen gehigarria: *Fundazioen organoak eratzerakoan, kontuan hartu beharko dira, hala badagokio, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dauden aurreikuspenak, organo horietako ordezkaritza orekatuari dagokionez.*
- 64.2 artikulua. Sektore publikoko fundazioen betebeharrak:
  Kontratazio publikoaren araudiaren ondorioetarako sektore publikoko erakundetzat jotzen diren fundazioek bermatu egin beharko dute egiten dituzten kontratazioak printzipio hauen araberakoak direla: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa. Bermatu egin beharko dute, halaber, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioei jarraituko zaiela langileak aukeratzeko deialdietan.

Azkenik, 1/2023 Legegintza Dekretuaren 2.4 artikuluan adierazitakoaren arabera, botere publiko guztiei eta botere publikoekin kontratuak edo hitzarmenak sinatzen dituzten edo horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradun diren fundazio pribatuei aplikatzekoak izango zaizkie bai arestian aipatutako ordezkaritza orekatuaren gaineko aurreikuspenak, baita gainerako printzipio orokorrak (3. artikulua) ere; orobat, genero-ikuspegia eraginkortasunez sartu beharko dute beren ohiko jarduera, azterlan, ikerketa edo estatistiketan eta datu-bilketan (17. artikulua), eta modu inklusibo eta ez-sexistan erabili beharko dituzte hizkuntza eta irudiak, zuzenean edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez ekoizten dituzten agiri eta euskarrietan (19.4 artikulua).

3.1 ORDAINPEKO LANGILEAK

Jarraian azaltzen den azterketan, fundazioan zereginen bat egiten duten eta horregatik soldata jasotzen duten pertsonak hartu dira ordainpeko langiletzat, zenbateko lanaldia duten gorabehera. Hau da, ez da kontuan hartu sinatutako lan-kontratua lanaldi osokoa edo partzialekoa den.

Enpleguko datu orokorrak eta jarduera-arloaren eta tamainaren araberako sailkapenak

Fundazioen % 70ek ordainpeko langileak dituzte. Ehuneko hori altuagoa da fundazioen tamaina handitu ahala. Hala, fundazio handi edo oso handi ia guztiek kontratatuko langileak dituzte, baina proportzio hori murriztu egiten da, ia herenera, mikroentitateen kasuan. Azken horietan, boluntarioak gehiago dira. Jarduera-arloen arabera dauden ordainpeko langileak aztertuz gero, helburu teknologikoekin lotutako fundazioak dira kontratatuta langile gehien dituztenak. Bestalde, garapenerako lankidetzako fundazioak dira kontratatuta langile gutxien dutenak.

55. grafikoa. Ordainpeko langileak



56. grafikoa. Ordainpeko langileak, jarduera-arloen arabera (%)



Fundazioen sektorean 15.715 pertsona daude kontratatuta guztira. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatuen % 1,62 (*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. EUSTAT*), eta metatutako hazkundea % 23 ingurukoa izan da azken sei urteetan. Gainera, azken urtean, aztertutako fundazioen % 77k beren plantillari eutsi diote edo handitu egin dute.

57. grafikoa. Enplegatu kopuruaren bilakaera



Bestalde, ordainpeko langileen erdiak baino gehiago gizarte-zerbitzuen eta teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren jarduera-arloetakoak dira.

58. grafikoa. Ordainpeko langileen banaketa, jarduera-arloen arabera (%)



Beren helburuak garatzeko ordainpeko langileak dituzten fundazioen artean, batez besteko plantilla 58 pertsonakoa da, eta batezbesteko horretatik gora daude jarduera-arlo hauek: teknologia, ikerketa eta berrikuntza, egoitzak, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza.

59. grafikoa. Enplegatuen batez besteko kopurua, jarduera-arloaren arabera



Aztertutako fundazioen batez besteko soldata gordina 40.717 eurokoa da, fundazioaren kargura doazen karga sozialak barne, eta lanaldi partzialeko kontratuen efektua kontuan hartu gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen zenbatekoaren antzeko zenbatekoa da (42.000 euro inguru), eta Estatukoa baino handiagoa da; izan ere, 2023ko ekitaldian, batez besteko soldata-kostu gordina 36.000 eurokoa izan da gutxi gorabehera (*Iturria: Lan-kostuaren urteroko inkesta. EIN*). Nabarmentzekoa da batez besteko soldaten kostu gordina % 7 inguru handitu dela 2022ko ekitaldiarekin alderatuta. Halaber, jarduera-arloen araberako azterketa indibidualizatua egiten bada, batez besteko soldata handienak banku-fundazioetan daude. Aldiz, izaera sozialeko fundazioek dituzte soldatarik apalenak.

60. grafikoa. Batez besteko soldaten kostu gordina, jarduera-arloen arabera (eurotan)



Azkenik, zuzendaritzako langileei dagokienez, ordainpeko langileak dituzten fundazioen % 36k baino ez dute memorian islatzen goi-mailako zuzendaritzarik dagoen eta haren ordainsari erantsia adierazi. Beraz, ezin da langileen kategoria horri buruzko ondorio fidagarririk atera.

Sexuaren araberako banaketa eta berdintasuna

61. grafikoa. Ordainpeko langileen osaera, sexuaren arabera (%)



Emakumeak ordainpeko langileen % 57 dira. Ehuneko hori % 86koa da egoitzen jarduera-arloan, horixe baita, hain zuzen, plantillan emakume kopuru handien duen arloa. Aitzitik, teknologien, ikerketaren eta berrikuntzaren eta gizarte-zerbitzuen jarduera-arloak dira batezbestekotik beheren daudenak. Haietan baino ez dira gehiago gizonezkoak langileen artean.

Fundazioen tamaina aztertuz gero, txikienetan emakumeak gehiago dira (% 67), eta kopuru hori murriztu egiten da kudeatutako gastuen bolumena handitu ahala (oso handietan % 48 dira). Hala, langile gutxiago dituzten fundazioetan emakumeen presentzia handiagoa da plantilla handiagoak dituzten horietan baino.

62. grafikoa. Banaketa, ordainpeko langileen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%)



Euskal Autonomia Erkidegoan, 2023an, emakumeak landunen % 48 ziren (*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. EUSTAT*). Beraz, fundazioen sektorea Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreen batezbestekoa baino feminizatuagoa dago. Berez, antolakundeen % 77tan emakumeak nagusi dira ordainpeko langileen artean, barne hartuta fundazioen % 18, haietako ordainpeko langile guztiak emakumeak baitira. Fundazioen % 5etan, berriz, langile guztiak gizonak dira.

3.2 PATRONATUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 13. artikuluaren arabera, «*Fundazio orok fundazioa gobernatu eta ordezkatuko duen organo bat izan beharko du, patronatu deituko zaiona. Patronatuari egokituko zaio fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, haien errendimendua eta erabilgarritasuna segurtatzeko*». Ondorioz, patronatua da fundazioaren estrategia orokorra eta haren jarduera-lerroak definitzeko arduraduna, eta bere erantzukizuna da ahalik eta gehien betetzea fundazioaren helburuak, eta ahalik eta martxarik onenean garatzea fundazioa.

Bestalde, patronatukideen ordainsariari dagokionez, legeriak patronatukideei ordaintzeko aukera mugatzen du. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 17. artikuluaren arabera, «*Fundazioetako patronatukideek doan jardungo dute beren karguan, horrek ezertan eragotzi gabe beren eginkizunek eragiten dizkieten gastuak kobratzea, baldin eta behar bezala justifikatzen badituzte*». Hala ere, artikulu horrek berak honako hau adierazten du: «*Fundatzaileek kontrakorik zehaztu ez bazuten, patronatuak erabaki dezake ordainsari bat ematea beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gainera fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten patronatukideei. Erabaki hori baimendu egin beharko du babesletzak, hiru hilabeteko epean*».

<u>Patronatuaren datu orokorrak eta jarduera-arloaren araberako sailkapenak</u>

Aztertutako fundazioek guztira 3.010 pertsona dituzte beren gobernu-organoetan. Hau da, patronatuak batez beste zortzi pertsonak osatzen dituzte, eta gehien-gehienek hamar pertsonatik beherako tamaina dute. Fundazioen Legeak 13. artikuluan ezartzen duenez, salbuespen kasuetan izan ezik, patronatua kide anitzeko organoa izango da, gutxienez hiru pertsonak osatua. Tamaina hori dute fundazioen % 15ek (lau fundaziok bakarrik dute pertsona bakarreko patronatua). Jarduera-arloei dagokienez, tamaina handiena duten patronatuak teknologia, ikerketa eta berrikuntzakoak, bankukoak eta egoitzetakoak dira. Aldiz, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan, tamaina txikiagoa izan ohi da (arlo hauetako patronatuen % 85etan gutxienez hamar pertsona daude). Patronatua osatzen duten pertsonen

kopurua fundazioaren tamainaren arabera aztertzen bada, bi aldagaiak zuzenean lotuta daudela ondorioztatu behar dugu. Izan ere, fundazioak kudeatzen duen gastuen bolumena handitu ahala, handitu ere egiten da patronatuaren tamaina. Hori horrela, fundazio oso handien edo handien % 70ek hamaika pertsonaz baino gehiagoz osatutako patronatuak dituzte.

63. grafikoa. Patronatuaren tamaina



Sektore publikoak izendatutako patronatukideak

Txosten honen fundazio berezien atalean adierazten den gisan, sektore publikoak 120 fundazioetan dauka patronatukideak izendatzeko gaitasuna. Ondorioz, aztertutako fundazioetan, organismo publikoek gobernu-organoetako 646 pertsona izendatu dituzte guztira; hau da, patronatukide guztien % 21 inguru. Jarduera-arloei dagokienez, sektore publikoak izendatutako patronatukideen % 58 inguru daude teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren, museo eta ondare kulturalaren eta hezkuntzaren arloetan. Era berean, arlo horietan dago sektore publikoak izendatutako patronatukideen pisu erlatiborik handiena, patronatuak osatzen dituzten pertsonen guztizkoarekin alderatuta.

64. grafikoa. Euskal sektore publikoak izendatutako patronatukideen banaketa, jarduera-arloen arabera



65. grafikoa. Euskal sektore publikoak izendatutako patronatukideak, patronatukide guztien aldean, jarduera-arloen arabera (%)



Sexuaren araberako banaketa eta berdintasuna

66. grafikoa. Patronatuaren osaera, sexuaren arabera (%)



Patronatukideen % 36 emakumeak dira. Proportzio hori % 5 handitu da azken sei urteetan. Hala ere, genero-arrakala ehuneko 28 puntukoa da (hau da, aldagai baten kategoriako emakumeen eta gizonen ehunekoen edo tasaren arteko aldea), eta, ondorioz, berdintasunetik hurbilago egongo gara genero-arrakala zerotik gertuago dagoenean. Jarduera-arloei dagokienez, ia guztietan % 36ko batezbestekoarekiko aldea oso txikia da, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren arloan salbu. Azken horretan, emakumeek gobernu-organoko postuen % 28 baino ez dute betetzen, hau da, genero-arrakala % 44koa da. Bestalde, emakumeek patronatuan duten presentzia aztertzen bada, fundazioen tamainaren arabera, tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da emakumeen ehunekoa; oso handietan emakumeak % 25 dira.

67. grafikoa. Patronatuen osaeraren bilakaera, sexuaren arabera (%)



68. grafikoa. Banaketa, patronatukideen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%)



Bestalde, patronatuko presidentearen edo idazkariaren sexuari dagokionez, patronatuen % 31k emakume presidentea dute, eta fundazioen % 46k emakume idazkaria dute. Hau da, presidentziaren kasuan, gizonen ehunekoa patronatuko batezbestekoa baino handiagoa da (hamarretik ia zazpi); idazkaritzan, berriz, alderantziz gertatzen da, eta emakumeen presentzia batezbestekoa baino ehuneko hamar puntu handiagoa da. Jarduera-arloei dagokienez, arlo bakoitzeko patronatuko kideak sexuaren arabera bereizita, desbideratze handiena garapenerako lankidetzako fundazioetan gertatzen da; izan ere, patronatuan dauden emakumeen proportzioa % 36 da, baina emakumeak presidenteen % 19 baino ez dira, eta idazkarien % 62, ordea.

Emakumeek patronatuan duten presentzia % 36koa da soilik, ordainpeko langileen artean, berriz, % 57. Jarduera-arloen arabera aztertzen bada, patronatuan eta plantillan dauden emakumeen arteko alde handiena egoitzetan eta banku-fundazioetan ageri da, horiek baitira, era berean, ordainpeko langileen artean emakume gehien dutenak.

69. grafikoa. Osaeraren konparazioa, sexuaren arabera (%)



70. grafikoa. Emakumeen proportzioaren konparazioa, jarduera-arloen arabera (%)



Ordezkaritza orekatua

Patronatuetako ordezkaritza orekatua den aztertzeko, hauxe hartuko da erreferentzia modura: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan zehazten den definizioa. Artikulu horren arabera, patronatuaren ordezkaritza orekatutzat hartuko da,

baldin eta emakumeen eta gizonen proportzioa % 40 eta % 60 arteko tartean badago, eta lau kidetik beherako patronatuen kasuan, bi sexuetako pertsonak ordezkatuta badaude. Bestalde, patronatu maskulinizatutzat joko dira emakumeak % 40 baino gutxiago badira, eta feminizatutzat, berriz, % 60 baino gehiago badira.

Aztertutako fundazioen artean, % 41ek du ordezkaritza orekatua gobernu-organoan; % 12k patronatu feminizatua dauka, eta gainerako % 47ak, patronatu maskulinizatua. Gainera, fundazioen % 10etan patronatua gizonek baino ez dute osatzen; aldiz, emakumeek bakarrik osatutakoak % 4 dira. Sektore publikoak gobernu-organoetako kideren bat izendatzeko gaitasuna duen fundazioetan, ordezkaritza orekatua, maskulinizatua eta feminizatua duten patronatuen proportzioa lehen esandako ehunekoen oso antzekoa da.

71. grafikoa. Ordezkaritza orekatua patronatuetan (%)



Azken sei urteetako datuak erreferentzia moduan hartzen badira, ikusten da patronatu maskulinizatuek beheranzko joera izan dutela. Izan ere, 2018an patronatu guztien % 59 ziren maskulinizatuak; ordezkaritza orekatuko patronatuak, berriz, % 34 izatetik % 41era igaro dira egun.

72. grafikoa. Ordezkaritza orekatuaren bilakaera patronatuetan (%)



Ordezkaritza orekatua jarduera-arloen arabera aztertzen bada, patronatukideen sexuen araberako banaketan gertatzen den bezala, teknologien, ikerketaren eta berrikuntzaren arloan handiagoa da patronatu maskulinizatuen ehunekoa; izan ere, arlo horretan, patronatu guztien % 61 daude maskulinizatuak, hau da batezbesteko orokorrean baino % 14 gehiago. Bestalde, ordezkaritza orekatua batezbestekoa baino handiagoa da museoen eta kultura-ondarearen, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-zerbitzuen jarduera-arloetan, ordezkaritza orekatua duten patronatuen ehunekoa % 48 eta % 58 artekoa baita arlo horietan.

73. grafikoa. Patronatuko ordezkaritza orekatua, jarduera-arloen arabera (%)



Bestetik, fundazioen tamainak ordezkaritza orekatuan duen eragina aztertuz gero, joera sexuen araberako banaketan bezalakoa da; hau da, fundazioaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da ordezkaritza orekatua. Izan ere, fundazio oso handietan patronatu maskulinizatuen ehunekoa % 82koa da, eta ez dago patronatu feminizaturik.

74. grafikoa. Patronatuko ordezkaritza orekatua, erakundearen tamainaren arabera (%)



3.3 BOLUNTARIOAK

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 2.1 artikuluak boluntariotzaren definizio hau egiten du:

> *«Pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:*
>
> *a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.*
>
> *b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebehar juridikoa ere.*
>
> *c) Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraituz eginak izatea.*
>
> *d) Ordainsaririk gabeak izatea.*
>
> *e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzea».*

Fundazioen kasuan, boluntarioen lana ezinbestekoa da, eta balio handia dauka helburuak lortzeko orduan, batez ere ordainpeko langilerik ez duten edo pertsona gutxik osatutako plantilla duten entitateen kasuan.

<u>Boluntarioen datu orokorrak eta jarduera-arloaren eta tamainaren araberako sailkapenak</u>

Fundazioen % 45 inguruk boluntarioak ditu, eta, gainera, fundazio horietatik, % 15ek ez dute ordainpeko langilerik; azken horietan, beraz, giza baliabideak boluntarioak dira, ehuneko ehunean. Hori horrela, boluntarioak dituzten fundazioen ehunekoa handiagoa da tamaina txikiagoko erakundeetan, eta murrizten doa kudeatutako gastuen bolumena handitu ahala.

75. grafikoa. Boluntarioak



11. taula. Boluntarioak, tamainaren arabera (%)

Tamaina	Boluntarioekin	Boluntariorik gabe
Oso handia	% 18	% 82
Handia	% 29	% 71
Ertaina	% 39	% 61
Txikia	% 51	% 49
Mikroa	% 53	% 47

Jarduera-arloa aztertuz gero, izaera sozialeko gaiekin lotutako helburuak dituzten fundazioek boluntario gehiago dute beren lantaldeetan.

76. grafikoa. Boluntarioak, jarduera-arloen arabera (%)



Fundazioen sektorean guztira 5.462 boluntario daude, eta % 36 inguruko hazkunde metatua izan du azken lau urteetan. Era berean, lankidetza mota hau duten fundazioen % 45ek 31 boluntario dituzte batez beste, baina haien % 49k 10 boluntario baino gutxiago dituzte.

77. grafikoa. Boluntario kopuruaren bilakaera



78. grafikoa. Boluntarioen kopurua



Jarduera-arloen araberako banaketan, boluntarioen % 55 inguru daude gizarte-zerbitzuetan eta beste arlo batzuetan (azterketak, pentsamenduaren hedapena eta bekak). Alabaina, ordainpeko langileak eta boluntarioak dituzten fundazioak soilik aztertzen baditugu, garapenerako lankidetzaren arloan dago azken horien pisu erlatibo handiena. Izan ere, arlo honetako fundazioen % 14 soilik dira boluntariorik gabeko fundazioak.

79. grafikoa. Boluntarioen banaketa, jarduera-arloen arabera (%)



80. grafikoa. Boluntarioen pisua giza baliabide guztien gainean, jarduera-arloen arabera (%)



Sexuaren araberako banaketa eta berdintasuna

81. grafikoa. Boluntarioen osaera, sexuaren arabera (%)



Emakumeak boluntarioen % 57 dira; alegia, ordainpeko langileen antzeko ehunekoa. Boluntarioen artean emakumeen ehuneko handiena duten jarduera-arloak egoitza, gizarte-zerbitzu, museo eta ondare kulturalarenak dira.

82. grafikoa. Banaketa, boluntarioen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%)



ONDORIOA



Txosten honek EAEko fundazioen sektorearen inpaktua aztertzen du. Sektorean dauden 686 fundazioetatik 490 aktiboak dira. Fundazioak sortzeko joera goranzkoa izan da azken ekitaldietan. Fundazio aktiboen % 79k urteko kontuak aurkeztu zituzten 2023an, eta horietatik 210 ikuskatu ziren.

Lehen kapituluan, sektorearen ezaugarri nagusiak deskribatu dira, jarduera-arloa, tamaina edo antzinatasuna kontuan hartuta besteak beste. Egindako azterketatik nabarmentzekoa da fundazioen % 40 mikroentitatetzat jotzen direla (alegia, 300.000 eurotik beherako gastua dute). Era berean, definitutako jarduera-arloetatik gizarte-zerbitzuena da jendetsuena (72 fundazio batzen ditu).

Fundazioen batez besteko antzinatasuna 27 urtekoa da, eta duela 50 urte baino gehiago sortu ziren 46 fundazio daude.

Sektorearen bereizgarri da, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten 139 eragileetatik 35 fundazioak direla.

Gardentasunaren atariaren arabera, fundazioen % 22k ez dute web-orririk, eta web-orria duten fundazioen artean, patronatuaren osaera da gehien argitaratzen den adierazlea. Aitzitik, datu ekonomikoak web-orrien % 20tan baino gutxiagoan daude eskuragarri.

Bigarren kapituluan, nabarmentzekoa da fundazioek 2023ko ekitaldian sortu duten diru-sarreren bolumena 1.561 milioi eurokoa izan dela. Diru-sarrera horietatik % 58 finantzaketa pribatua izan da, eta % 42, jatorri publikokoa. Diru-sarrerak guztira 707 eurokoak dira EAEko pertsonako, eta fundazioen sektoreak pisu handiagoa dauka Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetan; Bizkaiko lurraldeak ditu *per capita* diru-sarrera altuenak.

Finantzaketa publiko eta pribatuko iturriak aztertuz gero, diru-sarrera publikoek ordezkaritza handiagoa dute garapenerako lankidetzako eta teknologiako fundazioetan, gizarte-zerbitzuetako fundazioen aldean, horietan finantzaketa pribatua % 68koa baita.

Era berean, baliabide publiko gehien jasotzen duen arloa teknologia, ikerketa eta berrikuntzarena da. Izan ere, fundazioetara bideratutako baliabide publikoen % 40 jarduera horretako fundazioetara doa.

Bestalde, fundazioetara baliabide gehien bideratzen duen ente publikoa Eusko Jaurlaritza da, emandako dirulaguntzen % 54 hark ematen baititu.

Bilakaerari dagokionez, diru-sarrerak % 72 handitu dira 2020tik 2023ra bitartean, batez ere diru-sarrera pribatuen eraginez; izan ere, azken lau ekitaldietan bikoiztu egin dute zenbateko gordina, 2020ko ekitaldian beherakada handia izan baitzuten, pandemiaren eta hari lotutako murrizketen ondorioz kapital-merkatuak izandako beherakada zela eta. Bestalde, diru-sarrera publikoek urteko hazkunde jarraitua izan dute, eta 2023ko ekitaldian administrazio publikoek duela lau urte baino % 27 ekarpen gehiago egin dituzte.

Fundazioen helburuetara bideratutako gastua (horren barruan sartzen dira helburuetara bideratutako inbertsioak), bestalde, fundazioen sektorean 1.142 milioi eurokoa izan da 2023an. Jarduera-arlo nagusiak teknologia (418 milioi euro), hezkuntza (135 milioi euro) eta gizarte-zerbitzuak (205 milioi euro) izan dira. Fundazioek kalkulu-oinarriaren % 98 bideratu dute helburuetara.

Orokorrean, fundazioen sektoreak egoera saneatua dauka ondare- eta likidezia-mailan, eta fundazioen ondarea, EAEko biztanle bakoitzeko, 3.561 eurokoa da.

EAEko banku-fundazioek gizarte-ekintza egonkorra izan dute lehen 10 urteetan: 60 milioi euro inguru urtean. Gizarte-ekintza kulturara, kirolera, inklusiora, hezkuntzara eta interes sozialeko beste jarduera-arlo batzuetara bideratu da. Diru-sarrera gehienak Kutxabank SAtik datoz, eta azken ekitaldietan handitzen joan dira, 2020an izan ezik.

Sektore publikoak presentzia esanguratsua dauka; izan ere, 120 fundaziotan dauka gutxienez patronatukide bat izendatzeko ahalmena. Nabarmentzekoa da 120 fundazio horietatik 63tan sektore publikoak patronatukideen erdiak edo gehiago izenda ditzakeela.

Balio erantsi gordinari edo barne-produktu gordinari zuzeneko ekarpena egiten dioten magnitude ekonomikoek 707 milioi euroko balio erantsia izan dute 2023an; alegia, barne-produktu gordinaren % 0,84 2023an, eta % 0,81 2022an, kontuan hartu gabe zeharkako efektuak, efektu traktorea eta inpaktu induzituak.

EAEko fundazioek sortutako merkatuko balio sozialaren monetizazioaren eta kontabilitate sozialaren esparruan, sortutako balioa —1.130 milioi euro—, funtsean, lau interes-talde handitan banatzen da: langileak (ordaindutako soldatak) (% 35); administrazio publikoak (% 21); komunitateari emandako diruzko laguntzen banaketa

(% 13); eta fundazioan atxikitako zatia (itzulitako onurak eta amortizazioa) (% 31). Horrez gain, bezeroei sortutako balioak handitu egin du fundazioen sektoreak sortutako merkatuko balio soziala (1.682 milioi euro).

Hau da, fundazioen sektorera bideratutako finantzaketa publikoko euro bakoitzeko 2,7 euro itzultzen zaizkio gizarteari merkatu-eragiketen bidez, albo batera utzita hornitzaileen erosketek mobilizatutako balioaren bidez sortutako zeharkako balioa, «merkatukoa ez den» balioa eta balio emozionala.

Hirugarren kapituluari dagokionez (pertsonak izenekoa), nabarmentzekoa da aztertutako fundazioen % 70ek ordainpeko langileak dauzkatela. Azken sei urteetan kontratatutako pertsonak guztira 15.715 izan dira eta metatutako hazkundea % 23koa.

Gainera, fundazioen % 45etan boluntarioek laguntzen dute fundazioaren helburuak lortzen. Guztira 5.462 pertsona dira, eta azken urteetan goranzko joera hauteman da.

Sexuen araberako banaketari dagokionez, emakumeak dira ordainpeko langileen eta boluntarioen % 57. Patronatuetan, berriz, ehunekoa % 36ra murrizten da; hots, haien presentzia askoz murritzagoa da, eta ez dator bat emakumeek ordainpeko langileen artean duten pisuarekin. Patronatuko presidentearen edo idazkariaren karguari dagokionez, patronatuen %31k emakume presidentea dute, eta fundazioen %46k emakume idazkaria dute.

Bestalde, fundazioetako patronatuetan, kide anitzeko organoak direnez gero, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar da; fundazioen % 41etan bakarrik da hala; % 12k patronatu feminizatua dute, eta gainerako % 47an patronatu maskulinizatuak daude. Ildo horretatik, azken sei urteetan aurrera egin da ordezkaritza orekatua lortzeko bidean. Izan ere, 2018an ordezkaritza orekatua zuten patronatuak % 34 ziren, eta, gainera, haietako % 59 maskulinizatuak ziren.

ERANSKINAK



Siglak

- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
- LH: Lurralde Historikoak
- TE: Toki-entitateak
- EJ: Eusko Jaurlaritza
- AFA: Arabako Foru Aldundia
- BFA: Bizkaiko Foru Aldundia
- GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia
- EAE TE: Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateak
- EP: Entitate publikoak
- ZTBES: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea
- OG: Ondare garbia
- BPGd: Barne-produktu gordina
- KSE 2010: Europako Kontu Sistema 2010
- BEGd: Balio erantsi gordina
- BEE: Balio erantsiaren egoera
- FLIAGE: Familientzat lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak
- IGAE: Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusia
- EBITDA: *Earnings Before Interest Taxes Depreciation and Amortization*
- GRI: *Global Reporting Initiative*
- GJH: Garapen Jasangarriko Helburuak
- AECA: Enpresen Administrazio eta Kontabilitateko Espainiako Elkartea

Grafiko eta taulen indizea

GRAFIKOAK

1. grafikoa. Fundazio aktiboak eta ez-aktiboak 15
2. grafikoa. Inskribatutako fundazioen kopuruaren bilakaera..... 16
3. grafikoa. Inskribatutako fundazioen banaketa, lurraldeen arabera 17
4. grafikoa. Fundazioak eta biztanleria, lurralde historikoen arabera (%) 17
5. grafikoa. Fundazioen kopurua, jarduera-arloaren arabera..... 19
6. grafikoa. «Beste batzuk» azpiarloko fundazioen kopurua..... 20
7. grafikoa. Fundazioak, tamainaren arabera (%) 20
8. grafikoa. Fundazioen kopurua, antzinatasunaren arabera..... 21
9. grafikoa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko fundazioak..... 23
10. grafikoa. Web-orria 24
11. grafikoa. Batez besteko nota gardentasunean 25
12. grafikoa. Lortutako puntuazioa (%) 26
13. grafikoa. Adierazle bakoitza betetzen duten fundazioen kopurua (%) 27
14. grafikoa. Diru-sarrera publiko eta pribatuen banaketa (eurotan)..... 31
15. grafikoa. Diru-sarreren ehunekoa, finantzaketa motaren arabera (%) 31
16. grafikoa. Diru-sarreren banaketa, lurralde historikoen arabera (eurotan eta %-tan) 32
17. grafikoa. Per capita diru-sarrerak (eurotan)..... 33
18. grafikoa. Finantzaketa publiko eta pribatuaren ehunekoa, jarduera-arloen arabera (%)..... 34
19. grafikoa. Diru-sarrera publikoen ehunekoa, tamainaren arabera (%) 35
20. grafikoa. Diru-sarrera publikoak, jarduera-arloaren arabera (eurotan eta %-tan)... 36
21. grafikoa. Dirulaguntza publikoen ehunekoa, entitate publiko emaileen arabera (%) 37
22. grafikoa. Jasotako dirulaguntza publikoak, jarduera-arloaren eta entitate publiko emailearen arabera (eurotan) 38
23. grafikoa. Dirulaguntzak lurralde historikoen eta ente finantzatzailearen arabera (eurotan eta %-tan)..... 43

24. grafikoa. Dirulaguntza mota eta dirulaguntza mota erakunde finantzatzailearen arabera (eurotan eta %-tan) 44
25. grafikoa. Fundazioen diru-sarreren bilakaera 2020-2023an (eurotan) 46
26. grafikoa. Emandako dirulaguntzen bilakaera 2020-2023an (eurotan) 47
27. grafikoa. 2020-2023an emandako dirulaguntzen bilakaera, entitate emailearen arabera (eurotan) 47
28. grafikoa. 2020-2023an emandako dirulaguntzen bilakaera, jarduera-arloaren arabera (eurotan) 48
29. grafikoa. 2020-2023an emandako dirulaguntzen bilakaera, jarduera-arloaren arabera (eurotan) 49
30. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, jarduera-arloaren arabera (eurotan) . 51
31. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, kalkulu-oinarriaren gainean, jarduera-arloaren arabera (%-tan) 52
32. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, ondare garbiaren gainean, jarduera-arloaren arabera (%-tan) 53
33. grafikoa. Fundazioaren helbururako bideratutako gastuak per capita (eurotan) 53
34. grafikoa. Fundazioaren helburuetara bideratutako gastua, lurralde historikoen arabera 54
35. grafikoa. Ondarearen egoera: zorpetze-ratioa eta maniobra-funtsa 57
36. grafikoa. Aktiboaren kontabilitate-balioa (mila eurotan 60
37. grafikoa. Emaitzaren bilakaera eta banatutako dibidendua 2014-2023 aldian 60
38. grafikoa. Pay-out delakoaren bilakaera 2014-2023 aldian (%) 61
39. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua (eurotan) 62
40. grafikoa. Gizarte-ekintzaren helmuga, eremuaren arabera (eurotan eta %-tan) 62
41. grafikoa. Jasotako dibidenduak eta gizarte-ekintza (milioika eurotan) 63
42. grafikoa. Gizarte-ekintzara bideratutako dibidenduaren %-a (% 0 - % 100) 64
43. grafikoa. Kutxabank SA taldearen emaitzaren helmuga 2014-2023 aldian (milioi eurotan eta %-tan) 65
44. grafikoa. Zenbat fundaziotan duten administrazio publikoek patronatukideak izendatzeko gaitasuna 67
45. grafikoa. Zenbat fundaziotan duten administrazio publikoek patronatukideak izendatzeko gaitasuna: fundazio kopurua banakatuta. 68
46. grafikoa. Administrazio publiko bakarrak osorik izendatutako patronatua duten fundazioak 68

47. grafikoa. Fundazioen gastua, sektore publikoak izendatutako kargudunen ehunekoaren arabera (eurotan eta %-tan). 69
48. grafikoa. Fundazioen kopurua, sektore publikoak izendatutako kargudunen ehunekoaren arabera (eurotan eta %-tan). 69
49. grafikoa. Helburuetara bideratutako gastua, administrazio publikoek izendatutako kargudunen ehunekoaren arabera (eurotan). 70
50. grafikoa. EAEko fundazioek sortutako balio erantsi gordinaren banaketa edo aplikazioa (eurotan eta %-tan) 75
51. grafikoa. EAEko fundazioek sortutako merkatuko balio soziala (eurotan) 76
52. grafikoa. EAEko fundazioen sektorearen merkatuko itzulkin ekonomikoa, jasotako finantzaketa publikoarekiko (eurotan) 77
53. grafikoa. Balioa sortzen duten ekosistemak (eurotan) 78
54. grafikoa. Fundazioen sektoreko diru-sarreren biderkatzailea 79
55. grafikoa. Ordainpeko langileak 83
56. grafikoa. Ordainpeko langileak, jarduera-arloen arabera (%) 84
57. grafikoa. Enplegatu kopuruaren bilakaera 84
58. grafikoa. Ordainpeko langileen banaketa, jarduera-arloen arabera (%) 85
59. grafikoa. Enplegatuen batez besteko kopurua, jarduera-arloaren arabera 85
60. grafikoa. Batez besteko soldaten kostu gordina, jarduera-arloen arabera (eurotan) 86
61. grafikoa. Ordainpeko langileen osaera, sexuaren arabera (%) 86
62. grafikoa. Banaketa, ordainpeko langileen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%) 87
63. grafikoa. Patronatuaren tamaina 89
64. grafikoa. Euskal sektore publikoak izendatutako patronatukideen banaketa, jarduera-arloen arabera 90
65. grafikoa. Euskal sektore publikoak izendatutako patronatukideak, patronatukide guztien aldean, jarduera-arloen arabera (%) 90
66. grafikoa. Patronatuaren osaera, sexuaren arabera (%) 91
67. grafikoa. Patronatuen osaeraren bilakaera, sexuaren arabera (%) 91
68. grafikoa. Banaketa, patronatukideen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%) 92
69. grafikoa. Osaeraren konparazioa, sexuaren arabera (%) 93
70. grafikoa. Emakumeen proportzioaren konparazioa, jarduera-arloen arabera (%) 93
71. grafikoa. Ordezkaritza orekatua patronatuetan (%) 94

72. grafikoa. Ordezkaritza orekatuaren bilakaera patronatuetan (%)..... 95
73. grafikoa. Patronatuko ordezkaritza orekatua, jarduera-arloen arabera (%)..... 96
74. grafikoa. Patronatuko ordezkaritza orekatua, erakundearen tamainaren arabera (%) 96
75. grafikoa. Boluntarioak 97
76. grafikoa. Boluntarioak, jarduera-arloen arabera (%)..... 98
77. grafikoa. Boluntario kopuruaren bilakaera..... 99
78. grafikoa. Boluntarioen kopurua 99
79. grafikoa. Boluntarioen banaketa, jarduera-arloen arabera (%) 100
80. grafikoa. Boluntarioen pisua giza baliabide guztien gainean, jarduera-arloen arabera (%)..... 100
81. grafikoa. Boluntarioen osaera, sexuaren arabera (%) 101
82. grafikoa. Banaketa, boluntarioen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%) 101

TAULAK

1. taula. Altak/Bajak (eraketak/likidazioak)..... 16
2. taula. Fundazioen batez besteko antzinatasuna, jarduera-arloaren arabera 22
3. taula. Sektore publikoak izendatutako patronatukideak dituzten fundazioen betetze-maila (%) 27
4. taula. Emandako dirulaguntzen banakapena, entitate publiko emailearen eta jarduera-arloaren arabera (eurotan)..... 42
5. taula. Helburuetara bideratutako gastua, ondare garbiaren gainean, jarduera-arloaren arabera (eurotan eta %-tan)..... 50
6. taula. Magnitude ekonomikoak, jarduera-arloaren arabera (eurotan) 56
7. taula. Banku-fundazioen eta fundazioen sektore osoaren magnitude ekonomikoak, 2023an eta 2022an..... 59
8. taula. Fundazioen kopurua, sektore publikoak izendatutako patronatukideen ehunekoaren arabera..... 66
9. taula. EAEko fundazioen sektorearen balio erantsi gordina, kideen arabera. 2020-2023ko errentak (eurotan) 72
10. taula. Fundazioen sektorearen balio erantsi gordina, kideen eta lurralde historikoen arabera. 2023ko errentak (eurotan) 72
11. taula. Boluntarioak, tamainaren arabera (%)..... 98

Kontaktua



Harremanetarako helbide elektronikoa: elkarfun@euskadi.eus



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA